

...eta **Kitto!**

FIRIN FARAN: San Blas opilen lehiaketa domekan • DANON AHOTAN: Errealgo Merkatu Plaza eraitsi dute • KIROLEZ KIROL: Deporrekoez zortzi domina Euskadiko eski txapelketan • ELKARRIZKETAK: Mertxe Garate / Herriko euskaltegiak neguko matrikulazioan • GAZTEKITTO: 'Urrats bat' enpresak sortzeko programa • ERREPORTAJEA: Aratosteak martxa betean

625 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-II-1



antzerki

FUNIZIOA HASIERA DOA

jardunaldiak

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitateen administrazioak
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurtitzaren dirulaguntzen tramitazioak

- Fiskala
- Kontabilitateak
- Laborala
- Aseguruak



C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º - EIBARRA
Tel: 943 70 25 40 - Fax: 943 20 37 74
Email: keingroup@keingroup.com



Euskara Elkarte

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALA:

J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gaztelera bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzeta eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DINDIRRI.- Zintzilik egoten den mukia. "Dindirrixa ez da faltako surran puntan".

DIRUA AURRERATU.- Dirua aurreztu, gorde. Dirua maileguan eman. "Lehelengo diru apur bat aurreratu eban, eta gero diru hori aurreratzen eban estu ziranen artian, honenbesteko sarixa aurrez kenduta".

DIRUA BOTA.- Dirua xahutu. "Hutsa denboran, gurasoengandiko diru guztia bota eban". Zerbaitetarako dirua eman, elizan, esate baterako. "Neri tokatzen jatan dirua bota dot kerizpian (kartzelan) direnendako".

DIRUA EGIN.- Aberastu. "Hona agertu dan jendia, ez bizi izatera, ez bada ze dirua egittera".

DIRUA ESKUAN.- Erosten den uanean ordaindu. Gaztelera "al contado". "Dirua eskuan dabillena, gauza guztiak dittu merkiago".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

ERREBAL CENTER??

Bilbon "BEC" (Bilbao Exhibition Center) eta Eibarren "Errebal Center"; horrela dio behintzat merkatuan ipinitako iragarkiak. Ez dut uste ondo gabiltzanik. Ez al da gure **Merkatu Plaza** izen egokia? Edo **Errebal Merkatala Gunea**?

Badugu, bai, euskaraz gure hizkuntzaz, hainbat izen baliogarri eta egoki direnak. Gure udalari "Town Hall" izena ipiniko al diogu? Ez, ez dagokio.

Gure hizkuntza eta herriarekiko beste begirune bat eskatuko nioke erabaki hori hartu duenari.

Martiri Irlondo Arzalluz

Azken orduko aldaketa Aratoste programan.-

Aratoste Martitzeneko programan azken orduko aldaketa egin dute: Sardiñaren entierri txikia ordubete aurreratu dute antolatzaileek eta, beraz, 19.00etan hasiko da, 20.00etan hasi beharrean. Trikitilariak girotuko dute entierria. Zo-Zongo perkusio taldeak, berriz, 20.00etatik aurrera egingo du kalejira. Astixaren eskutik egingo diren jolasetan ez da aldaketarik izango, iragarrita zegoen moduan 17.00etatik 18.30etara egingo dira Untzagan.

asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Ezin gara UCiri abisatu gabe mendira joan, edo zinemara, edo amarenera joan eta mugikorra bateriarik gabe gelditu. Nik hori kartzela batean egotea bestekoa ikusten dut, eta marxa honetan laster txipa ipiniko digute"

(Amets Txurruka, Euskalteleko txirindularia)

"Aputua egiten denean, jokatzen den dirua hasieratik galdua dagoela argi eduki behar da. Frontoiak eman ditu ludopata gehien, baina hala ere oso portzentaia txikian gaxotzen dira pilotan, bestelako jokoekin alderatu gero"


(Beatriz Alonso, Ekintza-ko psikologoa)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Debegesa berrikuntzarako agente

Otsailaren 8an Eusko Jaurlaritzak, SPRIk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debabarreneko tokiko ordezkariak Debegesa eskualdeko berrikuntzako agente bezala aurkeztuko dute. 11.00etan hasiko den ekitaldian eskualdean berrikuntza sustatzeko dauden laguntza publikoen aurkezpena egingo dute. Horretarako, bertan izango dira Debegesako lehendakaria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako foru diputatua, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Energiako sailburordea eta SPRIko zuzendari

nagusia. Eskualdeko alkateak ere ekitaldian izango dira. Hasierako aurkezpen horren ondoren, José Antonio Gonzalez Sycom Training System-eko zuzendari nagusiak 'Nola inplikatuko pertsonak berrikuntza prozesuetan' ponentzia aurkeztuko du. Amaieran piskolabisa eskainiko dute.

Debegesak eskualdeko enpresak ekitaldira joatera animatu nahi ditu. Horretarako, 943820110 telefonora deitu dezakete edota mezu bat bidali pymes@debegesa.com helbidera. Horrez gain, www.debegesa.com edo www.euskadinnova.net webguneetan ere eman



AMAJA JAIO

Eskualdeko enpresei datorren barixakuko ekitaldira joateko gonbidapena egin diete.

dezakete izena. Euskadi+innova Euskadin berrikuntza bultzatzen diharduten pertsona eta erakundeen estrategia partekatua da. Debegesak, berrikuntza agente

izango den heinean, Euskadi Innova ekimenarekin batera, eskualde lehiakor bat lortzeko berrikuntzaren alde lanean jarraituko duela azaldu du.



Mutiloa, EAKo zuzendaritzako presidente

Aho batez aukeratu dute berriro Jose Antonio Mutiloa Eibarko Eusko Alkartasunako zuzendaritzako presidente, orain egun batzuk egin zen batzarrean. Mutiloak herrialde mailako zuzendaritzako kide izaten jarraituko du. Batzar berean zuzendaritza berriko beste kideak eta alderdiaren eskualdeko asanbladarako Eibarko 6 ordezkariak hautatu zituzten. Proposamen bakarra aurkeztu zen eta aho batez onartu zuten batzarrera joandako guztiek: Mutiloa buru dela, Josu Cristobal izango da idazkaria eta bokalak, berriz, Danel Zenarruzabeitia, Juan Cruz Gallastegi, Jesus Rementeria, Gorka Novoa, Lourdes Urzuriaga, Antton Jaime, Mari Jose Arakistain, Luis Amuategi eta Alberto Unamunzaga izango dira. Mertxe Garate, Udalean EAKo bozeramaile kargua betetzen duenez, zuzendaritzako kide ere bada eta Gazte Abertzaleak ordezkatzeko duen Iñaki Penedorekin gauza bera gertatzen da.

Eskolak Euskaldundu-ren agerraldia

Salaketa kanpaina burutzen dihardu Eskolak Euskaldundu herri ekimenak. Euskeraren inguruko hizkuntza-politika desegokia aldatzeko eskaera aurreko kanpainen aurkeztu zuten eta, orduan jasotako 107.768 sinadurek agintarien artean oihartzunik ez dutela izan ikusita, pauso bat aurrera eman eta salaketa kanpaina ipini dute martxan oraingoan. Horretarako, jendeak sinatzeko postalak banatu dituzte herritarren artean. Zapatuan, bestalde, kon-



LEIRE ITURBE

Herritar talde batek agerraldia egin zuen zapatuan, kanpainari babesa adierazteko.

tzentrazioa egin zuten hainbat herritarrek Untzagan, kanpainari bere babesa eskaintzeko asmoarekin.

Basterretxearen litografiak banatu dira

Deparkele Debabarrena Parkinson Elkarteak 'Eibar Kantuan' jaialdian zozketatu zituen litografiak banatu

ditu dagoeneko. Deparkelek antolatuta, azaroaren 10ean izan zen musika jaialdia Astelena frontoian eta ikuskizunera joan zirenen artean Nestor Basterretxea artistak sortutako 'Elurrez estalitako zubia' lanaren lau kopiaren zozketa egin zen. Litografia bana jaso duten irabazleak hauek izan dira: Mertxe Hernández Elizondo (476 zenbakia), Kepa Zulueta Orbea (545 zenbakia), Mari Asun Agirre (120 zenbakia) eta Maria Luisa Aldai (461 zenbakia, erretserbakoa). Zorionak!



IKER ARANBERRI

Nestor Basterretxearen litografiaren kopia bana eskuartu dute irabazleek.

autuan

SORMENAREN INGURUKO IKASTAROA

Tekniker-IK4k antolatuta, enpresadako sormen-ikastaroa egingo da otsailaren 21ean eta 26an horretarako Markeskuan prestatua dagoen laborategian. 10 ordu izango dira guztira, egun bitan banatuta. Ordutegia, berriz, 09.15etatik 14.15era artekoa izango da. Matrikulak 232 euro balio du eta, informazio gehiagorako, Teknikerrera deitu (943206744 telefono zenbakia) edo posta elektronikoa (rgarcia@tekniker.es) bidali daiteke, Ruth Garciaengatik galdetuta.

BAHIKETA ETA LAPURRETA

26 eta 27 urte bitarteko gazte bi atxilotu zituzten domekan, beste gizon bat bahitu, hari lapurtu eta zuhaitz batean lotu izana leporatuta. Barixakuan Azitainen gertatu zen bahiketa. Polizia iturrien arabera, automobil-

dako ordezko piezen salmentareko hitzordua zuten gazteek: erosle eta saltzailearen arteko elkarrizketa hasi eta furgonetatik beste bi gazte jaitzi zirela azaldu dute. Gizona furgonetan sartu, zeramana lapurtu eta mendian laga zuten, zuhaitz bati lotuta. Askatzea lortu eta baserri batean laguntza eskatu zuen gizonak. Salaketa egin eta Ertzainek hiru gazteak atxilotu zituen.

DEPENDENTZIARAKO LAGUNTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundia otsailean hasiko da dependentzia edo menpekotasunen bat dutenei laguntzak ordaintzen. Laguntzak menpekotasunen bat dutenen zainketa ordaintzari laguntzekoak dira eta beste probintzietan hasi dira ordaintzen: Araban 350 lagunek jaso dute dirulaguntza eta Bizkaian 500 eta 600 lagun inguruk.



Atzeraka

Merkatal gune bihurtu nahi digute herria. Merkatal gune irekia diote. Irekia baino, sabairik gabekoa. Eredu kontsumista kaleak berpizteko. Ados. Onartu beharra dago, erosketak egitea aisia aukera hedatuenetakoa da egun. Merkatu plaza zaharra bota dute ere. Nori ez zaio oilo ipurdia jarri albotik pasatzean? Plaza berria, eta moderno, eraiki nahi dute leku berean. Euskal Herriko supermerkatu kate handienak postuen herena erosi du honezkero. To merkatal gune itxia. Alfako proiektua ere goraka doa. Solairuz solairu, merkatal gune berria. Itxia ere. Gune hori kudeatzen duen dendak Toribio Etxeberria kalekoa ere mantenduko du, Sanandres egunean ateak irekitzen dituen berbera. Merkatal gune gehiago, eta lanpostu gehiago diotenez, halere dendari txikiak dardarka daude. Zergatik ote? Euskal Herriko merkatal gune handiak gainera nazkatu dira, eta urtean hainbat igande irekitzeko eskubidea eskatu dute. Zortzi aldiz irekitzeko eskubidea dute, orain arte erabili ez duten arren. Merkatal gune irekia, igandeetan ere irekia? Dendari txikia dardarka. Atsedenerako betarik gabe aurki. Artean, beti bezala, morroia okerrren. Herriko lurrin-denda handienetako bateko langileak ez omen dira hilean mila euroko soldatara iristen. Hori dendaren jabea merkatal plaza berriaren herena erosi duen etxe bera dela kontuan hartuta. Zakurrak oinutsik han ere. Ez dakit nora iritsi nahi dudana. Zutabea berriz irakurri eta nire hausnarketan ito eta galdu naiz. Gauza bakarra dut garbi, atzeraka goaz.

Imanol Magro

(KAZETARIA)



Merkatu Plaza eraitsi dute

Aurreko astean hasi zituzten Errebal kaleko Merkatal Plaza behera botatzeko lanak. Bat baino gehiago harrituta gertatu da, oso denbora gutxi erabili dutelako eraikina botatzeko eta, konturatu orduko, orain gutxira arte plazak betetako tokia obra-hondakinez aurkitu duelako. Eraikin berria jaso ahal izateko hondeaketa-lanak hondakinak jasotzen auzoan, hemendik hilabetera pare batera

hastekoak dira. Errebalgo merkataritza gune berriaren kudeaketaz arduratuko den Eibar Boulevard enpresak 2010. urte hasieran inauguratu nahi du zentru berria. Indusketak udaberrian hasiko dira, lur azpian joango diren lau solairuetarako tokia egiteko. Horiek amaitzean, datorren urtean eraikinaren eraikuntza lanekin hasteko moduan izango direla uste dute lanen arduradunek.

Nagusiak Aratosteak eta San Balentin ospatzen

Beheko Tokia jubilatuta etxeak San Balentin ospatzeko jaialdia antolatu du. Otsailaren 15ean izango da jaialdia, San Balentin egunean Astelena

frontoian nagusientzat dantzaldia egingo delako eta horrekin bat ez egitearren. Beheko Tokian txokolate-jana eta oparien zozketak egingo dituzte, besteak

beste. Bikoteentzat opari bereziak banatuko dira jaialdian. Aratosteak ospatzeko, berriz, bazkaria, dantzaldia eta koko-jantzi lehiaketa egingo dituzte martitzenean Beheko Tokian.

Egogain Gerontologia Zentruan atzo hasi ziren Aratosten inguruko ospakizuna. Bihar, besteak beste, dantzaldia egingo dute, domekan San Blas opilak izango dira protagonista eta astelehenean, 17.30etatik aurrera, Eibarko sevillana taldeak emanaldia eskainiko du. Martitzeneko koko-jantzi lehiaketarekin agurtuko dituzte jaiak.



ORAIN DELA

10 urte

1998-II-6
223. ZKIA.

Oteiza gurian izan zan bere eskulturia ipini zanian.



Kili-Koloko kidiak sasoi hartan.

- Jorge Oteiza Eibarren izan zan "Tropitea eta bakoa" eskulturia. Merkatu Plesaren onduan ipini zaban. Imbarisua sarpi milliaika izan zan eta 200 kopia tiki egitate bainanera jaso zan Udalak.
- Harriko alkateak isa sarpi milliaiko soldata gordinan izan zan abala amatu zan eta, pleno berian, zimegaren soldatia 91 egiteko erabazisa hartu zan. Zimegari liberatuak lau ziran, EAJko eta PSEko bina.
- Urtero 70.000 ikusleliko gara josten zirela Eibarren zimera kalkulatu zan zimegak barrero, Tistamie peliter larrekim, indarra kartzen ziran. Urteko zimegak bakarrik 50.000 ikusleliko gara baten zithan urtero.
- Kili-Koloko antzerki taldeak "leo" obra tonduatu zan Umbersidade kabaniam. Hamabest urte betetzen zithan onduan Kili-Koloko eta San Balerkim egunerako prestatutako lana Pedro Lukek zimegaren zan.

Parlamautoa bisitan

Esusko Legebiltzarrak kanpaina abiara zi du erakundea eta haren jarduera ezagutzera emateko asmoarekin. Hori dela eta, astelehenean Izaskun Bilbao Legebiltzarreko lehendakaria Eibarren izan zen, kanpainaren aurkezpena egiten. Kanpaina ibiltaria da, hau da, herriz herrikoa, eta horretarako 'Parlamautoa' izeneko autobusa erabiltzen dihardute. Kanpaina orain 6 hilabete hasi zen eta honez gero 20.000 lagun baino gehiago igo dira autobusera. Eibarren ere izan dugu horretarako aukera, astelehenean eguaztenera Txalxta Zelaiko parkean autobusa bisitatzeko moduan izan da eta. Orain arte 'Parlamautoa' bisitatzeko aukera izan dutenek "oso modu positiboan" baloratu dute ekimena eta gehienek "interesgarritzat" jo dute bisita. Denen artean, gainera, Mp3 bat zozketatzen dute astero. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.parlamauto.info gunera jo daiteke.

Bailarako turismo berrikuntzak FITURen

Bihar itxiko den Mardilgo FITUR turismo-bilguneak Debabarrenako turismoari eskainitako tarte izan du. 28. ediziora ailegatu da aurtan FITUR eta, gaur egun, turismo arloan egiten diren ekitaldien artean munduko bigarren garrantzitsuen da. Bihar itxiko den azokak 170 herrialdeetako erakusleak, 70.000 profesional bisitari eta 82.000 profesional erakusle jaso ditu. Azken edizioetan bezala, Debabarreneko erakundeetako ordezkariak han izan dira erakunde-harremanak sendotu, kontaktuak gehitu eta eskualdeko berrikuntzak eta proiektuak aurkezteko. Aurtan, gainera, Debak eta Mutrikuk, Zumaiarekin ba-



tera, 'Flysch-aren ibilbidea' aurkeztu dute: oinez nahiz itsasontziz josiko dute bidea bisitarietara eta Gipuzkoako kostako historia geologikoaren eta labarren edertasunaz gozatu ahal izango dute. Horrez gain, ibilbidean zehar ikusi daitezke, besteak beste, Nautilus Mutrikuko Ikasgune Geologikoa, Saturrarango hondartza, Zumaiarainoko itsas txangoa eta Algorri Interpretazioa Zentroa. Bestalde, eskualdeko turismo-arduradunek udan zabalduko den BTT Zentroaren eta bestelako proiektuen berri emateko aprobetxatuko dute bisita.



MAITANE CASTILLO OTAOLA -2007-I-31-

Urteurren meza San Andres parrokian
zapatuan, otsailaren 2an, arratsaldeko 19.00etan

Nahiz eta gure artetik urrutira joan,
beti izango zara gure bihotzetan.

Maite zaitugu. FAMELIXAREN PARTEZ



Urtarrilleko aldaparak hillebete baiño gehixago irauteko arriskua daka. Krisi ekonomikuan itzala inguruan dabil jakintsuen arabera eta azken datuak ikusitta danok eskuak burura eruan dittue. Inflaziñua, IRPF-ia, EURIBOR-an

igotzia... askondako hitz horrek, nahiz eta askotan entzun, txinuak dirudite.

Juan zan astian mundu osoko burtsek mugimendu haundixa eduki zebe. Minimo historikuak markatu ostian, gorakada izugarriak izan zebe astia bukatzerakuan. Mugimendu guzti horrek alarma piztu zittuen ekonomiaz arduratzen diranen artian, eta ondorioxoz, sortzen diran arazo hauek jasaten dabenen artian: herritarrak. Askok esaten dabe gorrixak ikusiko dittugula hemendik aurrera, beste batzuk esaten dana ez dala hainbesterakua.

Estatu Batuetatik datozen berrixak be ez dira oso onak. Atzerakada ekonomikua egongo dala esaten dabe eta horrek, Estatu Batuen potentziaren ondorioxoz, mundu osuan edukiko dau eragiña.

Badaezpada aurretia ez zan txarto egongo, datorrena datorrela, poltsikuak beteta edukitzia ez dagualako soberan.



Valentina Sánchez 76 urte, etxeoandria

Neri begittantzen jata krisixa dagola. Jende gehixena lan barik dabil, langaberezixa kopurua haundixa da. Nik bizilagun bat dakat batzutan lanian dagauna eta beste batzutan ez, eta denbora gehixago emoten dau lan barik lanakin baiño. Gaiñera, prezixo danak gora egin dirala be konturatu naiz.



Gotzon Beitia 23 urte, komertziala

Batuendako bai eta beste batzuendako ez, hori erlatibua da. Nik igartzen dotela esan leiket, etxebizitza eta horrek gauza danok oso garestixak dagoz, eta prezixo danak igo dira. Elikagaixak eta holakuak be, eguneroko gauzak, gero eta garestixaguak ipiñi dittue.



Encarnación De Diego 50 urte, etxeoandria

Bai, nik uste dot baietz. Ersketa egitterakuan eta beste leku erakotan igartzen dot krisixa daguala, lanbidietan be bai. Baiña arazua konpontzeko zer egiñ leiken ez dakitt, soldatak igotzen badira beste gauzak be igoko dittue. Holan, ez detsat erremedixo haundirik ikusten arazo honi.



Juan Hernando 32 urte, biltegiarria

Bai, erregular. Nik hipoteken eta IPC-iaren gorakada igartzen dot. Horrek danak, gero, egunerokotasuneko gastuetan be eragiña daka, prezixo danak igo egitten diralako, elikagaixak eta danak. Arazua konpontzeko, Euribor-ahunekoko batetik ez igotzeko mugia ipiñi eta soldatak igoko nittuzke.

Krisixak harrapatu gaittuala uste dozu?

Helbide berria

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|---------------------|
| 1 Kardiologia | 8 Pediatria |
| 2 Zirugia | 9 Psikiatria |
| 3 Dermatologia | 10 Radiologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 11 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 12 Barne Medikuntza |
| 6 Ortodontzia | 13 Alergologia |
| 7 Otorrinolaringologia | 14 Koloproktologia |

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatuta, merkataritzaren inguruko jardunaldia egin zuten astelehenean Portalean. Herriko dendariak beste toki batzuetako esperientzien berri izan zuten eta etorkizunean eurentzat baliagarriak izango diren aholku eta ideiak ondo apuntatu zituzten. Mertxe Garate Udaleko Merkataritza eta Industria zinegotziak azaldu dizkigu jardunaldien eta, oro har, herriko merkataritzaren inguruko gorabeherak.

- Astelehenean jardunaldia izan zen Portalean. Zertaz jardun zuten hizlariak?

Ponentzia bi izan ziren, bata PERCO edo merkataritza suspertzeko plan bereziaren ingurukoa, herri barruko merkataritza zentruetarako, eta bestea inguruko herrietan merkataritza gune irekien inguruan izandako esperientzien ingurukoa. Irunen orain dela lau urte merkatu plaza bota eta berria egin zuten, Eibarren egingo den moduan. Han ere merkataritza zentru berria jaso eta han sartu dute merkatu plaza, eta hango esperientziaren berri eman zuten. Gai beraren inguruan Madrilgo hizlari bat etortzekoa zen, baina azken orduan hegazkinarekin arazo bat egon eta ezin izan zuen parte hartu. Merkataritza suspertzeko plan bereziaren inguruko azalpenarekin prentsari eta dendariei planaren nondik norakoak azaldu nahi izan genizkien. Azalpenaren ondoren dendariekin berbetan egon nintzen eta denek esan zidaten oso interesgarria izan zela.

- Badira urte batzuk Eibarren merkataritza gune irekien inguruko apustua egin zela. Nolako abantallak dauzka horrek herriko merkatarientzat?

Eibar Merkataritza Gune Irekia hainbat elkartek osatzen dute, Dendarien Elkarteaz gain Debegesa, Udala, Gipuzkoako Merkataritza Federazioa, El Corte Inglés, ostalariak eta beste hainbat daude eta helburu berbera dute denek: Eibar, eskualdeko hiri nagusi gisa, inguruetan ezagutzera ematea. Oraindik lehenengo pausoak ematen gabiltza, 3 urte bakarrik daramazkigu, baina uste dut denek helburua berbera izanik, denentzat onuragarria izango dela.

- Helburuetako bat, behintzat, inguruko herrietatik jendea Eibarrera erosketak egitera etorri dadila da. Zer eskaintzen dute Eibarko dendek kanpoko jendearentzat erakargarriak izateko?



“Eibartar gehienek herrian erosten dute”

Azken batean, jendea erakartzeko publizitatea egin behar da eta horretan gabiltza, beste herri batzuetan ere euren jendea erakartzeko ekintzak egin-gitu dituzten moduan. Momentu honetan, PERCO horri lotuta, besteak beste herritarren erosketa-ohiturak nondik nora doazen azaldu dizkigute eta harrিতa geratu gara, eibartar gehienek Eibarren erosten dutelako, %80k.

- Ba askok pentsatzen du hiriburuetara joateko ohitura dagoela...

Donostiara baino gehiago Bilbora joaten da, Gasteizera askoz gutxiago. Baina hori ere aldatu daiteke, laster autopista martxan izango baita eta Gasteizera 20 minutuan ailegatuko baikara. Horren aurrean, herritarrak gurean erosten jarrai dezaten zerbait egin behar da.

- Errebalgo merkataritza gune berriko lanak aurrera doaz. Zelako bultzada eman diezaloke horrek herriko merkataritzari?

Proiektu hori Dendarien Elkarteak bultzatu zuen, ez Udalak. Orain dela bost urte azterketa egin zen Dendarien Elkartearen eta Udalaren ekimenez. Udalak ordurako argi zuen El Corte Inglés-a Ei-

barrera zetorrela eta Dendarien Elkarteak zer gertatuko zen beldurra zuen. El Corte Inglés-a herriaren alde batean ipinita zegoela ikusten zuten dendariak, eta horrek jende asko erakartzeko duela jakinda, jendea herriko erdialdera erakartzeko merkatu plazan zerbait egin behar zela pentsatu zen. Eta azterketan irten zen onena merkataritza zentru bat egitea izango zela, ez oso handia. Eta hortik abiatuta, Udala pausuak ematen hasi zen. Etorriko dena ikusita, merkataritza zentru nahiko ona izango dela uste dut.

- Laster 'Elbar Factoring' zabalduko da Astelena frontoian. Nola doaz orain arteko salmentak? Arrakasta izaten du beharpenen azoka berezi horrek?

Dendariak diotenez, neguko salmentak nahiko onak izan dira, kontuan izanda iraila, urria eta azaroan eguraldi nahiko eskasa izan genuela. Gero abenduan negu zoragarria izan dugu eta horrek ere eragina izaten du. Dendarien artean batez ere jantzidendak nagusi dira eta nahiko denboraldi ona izaten dihardute, baina beharpenak poliki doaz. Beharpenen azokak arrakasta handia izaten du neguan eta baita udan ere. Lehenengo Astelena egin zen, gero Armeria Eskolara pasatu zen azoka eta aurten berriz Astelena frontoira bueltatuko da, erdialdetik gertuago dagoelako. 30 bat dendarik hartuko dute parte eta oso pozik daude.

Neguko beharpenen azoka Astelena frontoian egingo da aurten

MERTXE GARATE, MERKATARITZA ETA INDUSTRIA ZINEGOTZIA

Coliseoan eta Hezkuntza Esparruan egingo dira

Antzerki Jardunaldixak

Antzerki Jardunaldixak eszenatoki bittan egingo dira aurten, XXXI. ediziñuaren aurkezpen ekitaldixan antolatzailliak azaldutakuari jarraituta. Hezkuntza Esparruan jaixotako jardunaldixak ez dabe albo batera lagako hango eszenatokixa, baiña Coliseo antzokixak eskintzen dittuan baliabidieri probetxua etarako detse, oiñ arte eskintzeko gatxak ziran hainbat ikuskizun programaziñuari gehittuta. Datorren astian hasi eta martxuaren erdira arte "Eibarren antzerkixa amastuko" dogula aurreratu dabe antolatzailliak.

Programaziñua momentuko antzezlanik onenekin osatu dabela esatia ez da gauza barrixa, 31 ediziñuetan halan egin dabe-eta. Baiña aurtengo nobedadia eszenatikixari begira aillegauko jaku: antzezlanetako batzuk, 10 hain zuzen be, oiñ arteko moduan Hezkuntza Esparruko antzokixan egingo dittue. Beste 12 antzezlan, barriz, Coliseoan es-

kinduko dittue. Antzerkixa Zinemian atal barruan emongo diran pelikulak be Coliseoan emongo dittue eta aurreko urtiotan Portalean egiñ izan dan irekiera ofizialeko hitzaldixa be Coliseoan izango da aurten. Giza irudixen VI. Erakustaldixak, bestalde, Untzagan eta Toribio Etxebarria kalian batu-ko dittu irudixeri bizia emoten detsen bost aktoriak.

Datorren eguenian, otsaillaren 7xan abiatuko dira XXXI. Antzerki Jardunaldixak, antzerkixa kalera etaratzen daben giza-irudixen erakustaldixarekin. Halanda be, hasiera ofiziala otsaillaren 9xan aillegauko da,



Manuel Galiana aktoriak hitzaldixa emongo dau otsaillaren 9xan.

Coliseoan egingo dan ekitaldixarekin: Manuel Galiana aktoriak 'Voy a hablaros e un sueño' izenburuko hitzaldixa eskinduko dau. Ekitaldi berian aurtengo Narruzko Zezen antzez-gidoi eta artikuluaren lehia-ketia irabazi daben gaztiak euren sarixak jasoko dittue, Juan Ortegak aurkeztuko daben saian.


Jardunaldixen aurkezpena martitzenian egiñ eben Portalean: programaziñuaren 'alma mater' diran Txema Cornago eta Juan Ortegarekin batera, Iñaki Arriola alkatia eta Aritz Sodupe Diputaziñoko Kultura zuzendarixa egon ziran. Jasotako laguntzengaittik instituziñeri eskerrak emoteko aprobetxau eben ekitaldixa antolatzailliak. Aurtengo presupes-tua 164.000 eurokua da eta,

JUAN AGUIRREAZALDEGUI AGUIRREURRETA
urtarrilaren 23an hil zen, 86 urterekin

Bere emaztea M^a Nieves Bereciartua Kortazar eta sendikoen izenean



ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunetara joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi



COLISEOAN

eskinduko diranak

Otsailak 11 (astelehena),
20.30xetan

'Espía a una mujer que se mata' (Daniel Veronese-ren konpainia, Argentina). 11 euro.

Otsailak 16 (zapatua),
18.00etan

'IrudimenDeko Hiria' (Teatro Gorakada, Bizkaia). 4 euro.

Otsailak 17 (domeka),
20.00etan

'Me llamo Juan Ramón Jiménez...?' (Euroescena, Madril). 14 euro.

Otsailak 22 (barixakua),
20.30xetan

'Mozart Ballets' (Ballet Biarritz, Centre Choréographique Nationale, Frantzia). 20 euro.

Otsailak 25 (astelehena),
19.00etan eta 22.00etan

'Salir del armario' (Vorágine Producciones, Madril). 14 euro.

Otsailak 29 (barixakua),
20.30xetan

'La verdad sospechosa' (Eurekateatro, Albacete). 11 euro.

Martxoak 3 (astelehena),
20.30xetan

'El método Grönholm' (Producciones Teatrales Contemporáneas, Madril). 14 euro.

Martxoak 4 (martitzena),
20.30xetan

'El método Grönholm' (Producciones Teatrales Contemporáneas, Madril). 14 euro.

Martxoak 5 (eguztzena),
20.30xetan

'Grönholm metodoa' (Txalo produkzioak, Gipuzkoa). 11 euro.

Martxoak 8 (zapatua),
20.00etan

'Artaud, rien de rien' (Cía. Estable del Teatro Francisco Rabal, Madril). 5 euro.

Martxoak 12 (eguztzena),
20.30xetan

'Sommer jaunaren istorioa' (Txalo eta Soroiz, Gipuzkoa). 11 euro.

Martxoak 15 (zapatua),
18.00etan

'Golulá' (Galitoo Producciones, A Coruña). 5 euro.



EGKI BELAR

Txema Cornago eta Juan Ortega jardunaldixen antolatzailliekin batera, alkatia eta Diputaziñoako ordezkaria egon ziran aurkezpenian.

horri lotuta, goi-mailako programaziñua preparau dabe Hezkuntza Esparruak.

Balleta eta zarzuela

Antezlan zerrendari begiratzten badetsagu, berez antzerki generuaren ehuneko ehunian bat ez datozen pare bat ikuskizun topauko ditugu: bata, Biarritzeko Balletak eskinduko dabenean 'Mozart Ballets' ikuskizuna, oin arte toki faltagaittik egitako aukerarik egon ez dan dantza saio ikusgarria. Eta bestia, 'La taberna del puerto' zarzuela. Azken honekin jende asko erakartzia espero dabe eta, horregaittik, emanaldi bikoitza eskinduko dabe Errioxako Pepe Eizagaren konpainiakuak. Antzezliak eta abeslarixak taula gainian batu-ko dituan ikuskizuna, gainera, lehelengoz ikusi ahal izango da Euskadin.

Antolatzailliak urtero errepikatzen dabe aktore ezagunek antzezten dituen lanetatik kanpo, beste guztiak be mailla haundikuak izaten dirala. Halanda be, egixa da aurrealmentan eskari haundixena holakuen inguruan sortzen dala. Aurtengo aktore ezagunen zerrendari begiratuta, irekiera ekitaldixan parte hartuko dabenean Manuel Galiana aittatu bihar da. Aktoreak ibilbide luzia dauka atzetik, baiña azken aldixan Telecinco-ko 'Escenas de matrimonio' telesailian ikusi geinke. Halanda be, antzerki munduan biharriari segitzen

10 antezlan Hezkuntza Esparruan egingo dira; 12, Coliseoan

dau eta Eibarko Jardunaldixetan bertan 'Me llamo Juan Ramón Jiménez?' antezlanian biharriari ikusteko aukeria izango dogu. Jose Luis Gil, bestalde, 'Salir del armario' lanian ikusiko dogu; Maria Pujalte eta Jorge Roelas 'El método Grönholm' antezlanian. Narruzko Zezen taldean lehelengo pausak emon zittuan Iñaki Miramón-ek 'Gordas' antezlanian jardungo dau eta euskerazko antzelanetan Jose Ramon Sorroizen jardunarekin gozatzeko aukeria egongo da, 'Grönholm metodoa' lanian.

Narruzko Zezeneko kidiak

Bere sasoiari Unibersidade Laboraletik pasau diran aktoreekin segiduta, Sardo Irisarri eibartarrak 'La verdad sospechosa' antzelanarekin hartuko



Sardo Irisarri eibartarra "La verdad sospechosa" lanian ikusteko aukeria egongo da otsaila amaieran.

HEZKUNTZA ESPARRUAN

eskinduko diranak

Otsailak 15 (barixakua),
20.30xetan

'Rebeldías posibles' (Cuarta Pared konpainia, Madril). 11 euro.

Otsailak 20 (astelehena),
20.30xetan

'Amour à Mère' (À petit pas, Frantzia). 11 euro.

Otsailak 23 (zapatua),
20.00etan

'Misterio del Cristo de los Gascones' (Nao D'Amores, Segovia). 11 euro.

Otsailak 27 (eguztzena),
20.30xetan

'Aullidos. Un cuento de hadas para adultos' (Teatro Corsario, Valladolid). 11 euro.

Martxoak 1 (zapatua),
20.00etan

'La taberna del puerto' (C.L.A. Pepe Eizaga, Errioxa). 14 euro.

Martxoak 2 (domeka),
20.00etan

'La taberna del puerto' (C.L.A. Pepe Eizaga, Errioxa). 14 euro.

Martxoak 7 (barixakua),
20.30xetan

'Mandíbula afilada' (Narruzko Zezen, Gipuzkoa). 5 euro.

Martxoak 10 (astelehena),
20.30xetan

'Cartas de amor a Stalin' (Escuela de Teatro Bululú, Madril). 5 euro.

Martxoak 13 (eguztzena),
20.30xetan

'Gorda' (Trasgo Producciones). 14 euro.

Martxoak 14 (barixakua),
20.30xetan

'Gorda' (Trasgo Producciones). 14 euro.



BESTELAKUAK

Otsailak 7 (eguna),
17.00etatik aurrera,
Giza Irudixen VI. Erakustaldixa
'*Mariñela*' (Fabián Ezequiel
López), '*Monja*' (Reinaldo
Miranda), '*Bizkondia*'
(Marcelo Chamorro),
'*Gladiatoria*' (Julio García)
eta '*Piratia*' (Alejo Merlín).
**Untzagan eta Toribio
Etxebarria kalia.**

Otsailak 9 (zapata),
19.00etan,
XXXI. Antzerki Jardunaldiak.
**Irekiera ekitaldixa, Manuel
Galiana**-ren hitzaldixarekin:
'*Voy a hablaros de un sueño*'.
Aurkezpena: Juan Ortega.
Aula de Cultura DV. 'Narrazio
Zezen' lehiaketaren
23. ediziñuaren sari-banaketa
ekitaldixa. **Coliseoan.**

"*Salir del armario*" lanaren
emanaldi bi egongo dira egun
berlan, otsailaren 25lan.

dau parte Jardunaldixetan. La-
na Albaceteko Eureka teatro
konpainiarekin eskinduko dau
eta lan berarekin itxi eban Al-
magroko jaialdi ospetsua. Na-
rruzko Zezen taldiak eskindu
ohi daberen urteroko lana, ba-
rriz, oinguan taldeko beterano
biren eskutik ailegatu da: Ru-
bén Gallardo eta Belén Fer-
nandez 'Mandíbula afilada' la-
nian alkarrekin ikusteko auka-
ria egongo da.

Umiendako ikuskizunak

Antzerkixa edade guztietan
erakargarria dala erakutsi
nahixan, umiendako propio
pentsautako ikuskizun bi es-
kinduko dira datozen eguno-

tan, euskeraz bata eta gaztele-
raz bestia. Bizkaiko Gorakada
taldiak 'IrudimenDeko Hiria'
izenburuko ikuskizunarekin en-
treeniduko ditu etxeko txiki-
xak eta Jardunaldixak agurtze-
ko, barriz, A Coruñaiko Galitoo-
nek 'Golulá' ikuskizuna taulara-
tuko dau.

Komedia, drama, idazle eta
aktore ezagunak... denetarik
topau zeinkie programazi-
ñuan. Bakotzak bere gustuaren
arabera aukeratu, seguru ez ja-
tsuela damutuko-eta. Teloiak
jasotzeko gertu dagoz.

ANTZERKIXA ZINEMAN

Emanaldixak 21.30xetan
Coliseo Antzokixan.
3'50 euro.

Otsailak 19 (martitzena)
'*El mercader de Venecia*'
(Michale Redford).

Otsailak 26 (martitzena)
'*Vete de mí*'
(Victor García León).

Martxoak 11 (martitzena)
'*El método*'
(Marcelo Piñeyro).

SARRERAK bixartik aurrera SALGAI



**ANTZEZLAN GUZTIETARAKO SARRERAK ALDEZ AURRETIK EROSTEOKU AU-
KERIA EGONGO DA.** Dana dala, aurtien barritasunik badago, bes-
tiak beste aurresalmenta Coliseoan egingo da-eta. Bixar eta
etzi (zapata eta domekia) Coliseoko takilla 10.00etatik
14.00etara egongo da zabalik eta datorren astian, otsailaren
4tik 8ra, 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara.
Horrez gain, antzezlan bakotxa amaitzian, hurrengo egunetan
eskinduko diranandako sarrerak erosteko aukeria egongo da.

Egunian bertan sarrerak erosteko aukera be badago (aurre-
salmentan saldu ez dittuenak), antzezlan hasi baiño ordube-
te lehenagotik hasitta.

Otsailaren 16 eta 22ko eta martxuaren 15eko funziñuetara-
ko ('IrudimenDeko Hiria', 'Mozart Ballets' eta 'Golulá') sarre-
rak Telekutxa eta www.kutxa.net helbidiraren bittartez ipiñiko
dittue salgai, Coliseoan urtian zihar egitten diran bestelako
ikuskizunetarako egitten daberen moduan. 'Antzerkia Zineman'
ataleko pelikuletarako gauza bera egingo dabe.

MAITANE-ren 2007/01/31 **URTEBERENA**

Bizipozez beteta esnatzen den
txoritxo kantariarenari
eskerririk beroena ematea
besterik ez zaigu geratzen;

maitasunez, alaitasunez,
itxaropentsu zuk irakatsi
zenigun bezala.
zure irribarrerik goxoena
gogoratzeak,
aurrera egiteko kemena
emango digulako;
bide luze honetan hau
hasiera besterik ez da eta.
Beti izango zaitugu
gure bihotzetan
asko maite zaitugu
MARTXAN.

ZURE KVADRILA.



URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



**MEKANIKETARAKO
TRESNAK**

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak


ROY - Diamante eta boraxezko harriak



Toribio Etxebarria, 4



Kurtsoa irailean hasi bazen ere, Euskaltegian izena emateko garaiz dago interesa duenak. Euskara ikasi, EGA lortu, agiri ezberdinak eskuratu eta euskerarekin loturiko beste hainbat gauza ezberdin egin daitezke bai AEK-n, bai Udal Euskaltegian. Euskaltegi biek erraztasun ugari ipintzen die izena eman nahi dutenei, ikasleek askatasun handia daukate euskara ikasteko orduan, dena herrian euskara bultzatzeko helburuarekin.



NEREA BEITIA

Udal Euskaltegiko zuzendaria:

“Ikasleen nahietara moldatzen gara”

- Otsailaren 8an amaitzen da matrikula epea. Nola joan da matrikulazioa orain arte?

Gabonen ostean hasi ginen, urtarrilaren 7an, eta jende nahikoa apuntatu da. Iaz baino pertsona gehiagok eman duela izena esan daiteke, beraz, matrikulazioak martxa ona daramala esan dezakegu. Urtarrilean aurretik dauden taldeak osatzen ditugu, izan ere, urtarrilean, normalean, ez da talde berriak sortzen. Horrela, maila kontutan hartuta, duda gabe, irailtik aurrera datozenak hasieratik osatuta dauden taldeetan sartzen ahalegintzen gara.

- Zeln zerbitzu eskaintzen duzue?

Ba dena: 1., 2. eta 3. mailak, azterketetarako prestaketa, profilak, EGA, gurasoendako ikastaro bereziak, baita etorkinentzat ere (nahiz eta aurretik ez egon, soilik ume etorkinentzako klaseak) eta abar. Ordu-tegi aldetik, lehenengo taldeak goizeko 8.00etan sartzen dira eta iluntzeko 21.00ak arte egoten dira klaseak.

- Askok denbora falta ipintzen dute euskara ez ikasteko aitzakia bezala.

Bai. Gure taldeen erritmoa ezberdina izaten da, horrela, batzuk egunerokoa dira, beste batzuk astean egun bitakoak, eta abar. Gu ikasleen nahietara moldatzen gara. Gainera, BOGA programa informatikoa eskaintzen dugu, autoikaskuntzarako programa dena, eta horren bitartez aukera dago bakoitzaren etxetik lan egiteko. Azkenaldian arrakasta handia izan duen programa da BOGA.

- Gero eta etorkin gehiago dago herrian. Euskara ikastera animatzen dira?

60 orduko ikastaro bat antolatzen da etorkinei zuzenduta, astean hiru egunetan eta abar. Urrian hasi zen ikastaroa, 12 lagun apuntatu ziren, eta aste bitan hiru saiotara etorri ziren. Baina zaila izaten da denak ordu-tegi berean elkartzea eta batzuk lana aurkitu zutenez, hirugarren saioan bertan behera utzi behar izan genuen ikastaroa.

XABI ZUBIZARRETA

Eibarko AEK-ko zuzendaria:

“Euskeraren erabilera bultzatu nahi dugu”

- Matrikula epea zabalik duzue. Nolako martxa darama?

Ba nahiko poliki doa. Oraindik, otsailaren 10a arte zabalik dago, eta azken momentuan ematen du izena jendeak. Orain fenomeno berri bat ematen da, kurtso hasieratik matrikula egin gabe urte hasieran jendea hasten baita. Horrela, Errege eguna pasatu eta hurrengo egunetan mugimendua egon zen, jendea etorri zen, baina orain motel doa.

- Zer egin behar da izena emateko?

Hona (AEK-ra) etorri eta lehenengo froga txiki bat egiten diogu datorrenari daukan maila jakitzeko, orduan, horren arabera, osatuta dauden taldeetan integartzeko aukera ematen diogu ordu-tegien arabera. Oraingo matrikulazioan, normalean, ez dira talde berriak sortzen, lehendik daudenak handitzen dira gehienbat, ez bada EGA edo horrelako talde bat egiten.

- Nolako da izena ematen dutenen profila?

Oso zabala da kontu hori.

Gazteak, nagusiak, gurasoak, etorkinak (ez nahi beste, ordu-tegi eta lanekin arazoak izaten baitituzte) eta abar. Beraz, ikasleen profila oso zabala da, bai adin aldetik, bai lan-bide aldetik.

- Zelintzuk dira zuen helburuak?

Gure helburu nagusia Eibar euskalduntzea da, baina hori aurrera begira izan beharko da. Guk garrantzia mintzamenari ematen diogu, baina lau trebetasunak (gramatika, idazmena eta abar) lantzen ditugu. Hala ere, agiriaren bila datorren jendea gero eta gehiago ikusten dugu. Aurretik, gainera, gu hasiko gara mailen agiriak ematen eta azterketak egiten, horrela, gure erronka izan den gauza bat lortu dugu, aspaldiko eskaera bat baitzen. Hori erakargarria da apuntatzeko orduan, horrela, EGA eta bestelako agiriak lortzeko izena ematen dutenen kopurua handitu egin da. Bestalde, guk bultzatzen duguna erabilera da eta beste lau trebetasunei ere garrantzia ematen diegu.

Musikia, dantzak eta Koko-jantzizak Aratostietan

Pelukak, maskarak eta mota guztietako koko-jantzizak ikusiko ditugu asteburuan herrixan. Kalia kolorez jantzi eta ondo pasatzeko egunak dira honek, tradiziño haundiko jaixak. Kendu hautsa koko-jantzixeri eta gozatu Aratostiak topera!

Asteburuan ez da aspertzeko aukerarik egongo, baiña Aratostiak aurreko astian hasi ziran Kezka Dantza Taldeak lehelen goz eskindu dittuan Koko-Dantzekin: Arrate, Mandiola eta Gorosta baillaretako basarrixetan jardun eben dantzan eta, basarrixetatik bueltan, Eibarko kalietan eskindu zittuen dantzak, jendia Aratoste girora erakarritta.

Atzo, barriz, Eguen Zurixa izanda umiak izan ziren protagonista, ikastetxiak antolatutako jaialdi eta kalejiratan lehelengo eta, ondoren, Untzagan, hango taillar eta berbenan.

Karpia Untzagan

Aurtengo barritasunen artian, aittatzekua da Untzagan gaur arratsaldian zabalduko da-

ben karpia. Club Lambrettak tabernia ipiñiko dau barruan eta, eurixa egiñez gero, antolatuta daguezen ekintzak karparen babes-pian egitteko aukeria egongo da. Gaur, 19.00etatik aurrera, DJ Arno-k jardungo dau karpan. 19.30xetan, barriz, Kaldereruen kalejiria hasiko da Urkizun. Urteroko moduan, Hungariatik aillegautako motxaillak euren kantu eta dantzekin girotuko dittue herriko kalia. Untzagan, barriz, Ustekabe fanfarrekuak botako dabe Aratoste pregoia, jendia jaixarekin parte hartzera animatzeko. Karpan egingo dan herri-afarixa eta ondoren hasiko dan Filipin Folk taldiaren kontzertuarekin amaittuko dira gaurko ekitaldixak.

Bixar arratsaldian, barriz, atzera be umiak hartuko dittue kalia, euredako antolatutako play-back lehiaketan, koko-jantzi lehiaketan eta karpako diskotekan. Epeltzeko txokolaterik ez da faltako.

Koko jantzizako kuadrillak

Datozen urtiotara begira indartu nahi dan ekitaldixa koko-jantzizako kuadrillen kaljiria da. Aurten kuadrilla bakarrak hartuko dau parte, baiña hurrengo urtiotan gehixago animatzia espero dabe. Kalejiria 20.00etan Urkizun hasiko da. Gabian, barriz, dantzan egitteko aukeria egongo da, Drindots taldiarekin hasieran eta, ondoren, DJ Arnorekin.

Aratostiak 2008 Eibarren

BARIXAKU ERREGULARRA

19.00.- Aratostietako **Karpa** zabalduko dabe Club Lambretta eta DJ Arno-k girotuta.

19.50.- Urkizun hasitta eta Untzagaraiño, **Kaldereroen kalejiria**. Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Lagun Taldea, Untzaga jubilaru etxeko abesbatza eta Jainagaren trikixia eskolia.

20.50.- Untzaga plazan, Kaldereroen **abestixak eta dantzak**.

21.00.- Aratostietako **pregoia**. Pregoilarixa: Ustekabe. ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Kezka Dantza Taldeak antolatuta.

21.50.- **Herri-afarixa** Untzagako karpan.

23.00.- **Rock kontzertua**, Filipin Folk taldiarekin. EMGE Eibarko Musikari Gaztien Elkarteak antolatuta. Untzagan.

ARATOSTE ZAPATUA

17.00.- Untzaga plazan, umiendako **play-back lehiaketia**. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta.

18.00.- **Koko-jantzi lehiaketia**, As Burgas Gali-ziako Etxian.

18.00.- Untzagan hasitta, **kalejiria** Pasai fanfarrearekin.

18.50.- **Umiendako diskotekia**, Untzagako karpan, DJ Arnorekin.

19.00.- **Txokolate-jana**.

20.00.- Urkizutik hasitta, koko-jantzizako **kuadrillen kalejiria**.

23.00etatik 03.00etara.- **Dantzaldixa** Drindots taldiarekin. Jarraixan musikia DJ Arnorekin.

04.00.- Untzaga plazan, **txokolate-jana**.

ARATOSTE DOMEKIA

11.00.- Eibarko Usartza Txistulari Bandaren **kalejiria**.

12.00.- Untzaga plazan, **Sanblas lehiaketia**, Eibarko Bakillauaren Kofradixiak eta Udalak antolatuta.

18.00.- Coliseo Antzokixan, **Oskorri Banda Band**, Oskorri eta Cielito Musika Bandarekin.

19.00.- Coliseo Antzokixan hasi eta Untzagaraiño, 'La Troup de la Rue' **antzerki taldiaren kalejiria**.

ARATOSTE MARTITZENA

17.00etatik 18.50etara.- Untzaga plazan, **umiendako jolasak** Astixarekin.

20.00.- **Sardiñaren entierro txikixa**, Zo-Zongo perkusiño taldiaren laguntasunarekin.

Martitzenian agur

Domekan, jairako gogua dakanandako, Usartza txistulari bandak kalejiria egingo dau eta, Aratostiak San Blas egunarekin alkartu diranez, batera ospatuko dira, lehelengoz antolatu dan San Blas opillen lehiaketarekin. Arratsaldian Coliseo antzokixan Cielito Musika Bandak eta Oskorri kontzertu bezexia emongo dabe eta, ondoren, La Troup de la Rue antzerki taldiarekin kalejira egingo da. Eta ohikua dan bezala, martitzenian agurtuko ditugu aratostiak, arratsaldian sardiña-txikixa erreta. Baiña, martitzena aillegau bittartian, jaixarekin bat egitteko aukerarik ez da falta.

OSASUN

Dentistak

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAIA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta koloketibis handiak
Gandutako zentroak...

TURRIDO ETXEBERRIA 4 - Leal. Tel. 943 20 18 51

... 15 urte eibartarren irribarrea pizten

Bista Eder
CLINICA DENTAL - HORTZ KLINIKAK

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75

- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

IRAZABAL Hortz-Klinika

J. Irazabal, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK
ZERBITZUAK RPS 04/02

Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

ABANTAILAK
- DESKONTU BEREZIAK:
- Mutua eta Aseguruak, enpresak...
- IMQ

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO

Dentistak

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Dietetika

Nutrizio eta Dietetika Zerbitzua

Nutrieibar

Aurora Cid

Larregizko pisua eta obesitatea
Urmeen obesitatea
Nutrizio-berreziketa
Dieta pertsonalizatuak

Kontsulta astearte eta ostiralean
Ordua hartzeko: 647 823 971
San Agustín, 2-4
Bategoak 1 Lokala

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
* Logopedia
* Inkontinenzia urinarioak
* Kirol medikuntza
* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato Eibarres

Errehabilitazioa eta Fisioterapia
ZENTRUKO SENDAGILIA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean
EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Fisioterapia

FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
MASAJE TERAPEUTIKOA

C.F. Errasti
705 Koleg. zkia.

Zuloagatarren, 7
Tel. 605 71 49 88 / 943 70 15 61

OSKAR LOPEZ DE GUEREÑU
18 Kolegiatu zbkia.

FISIOTERAPIA GUEREÑU

EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
TEL. ETA FAXA:
943 12 14 80

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.

San Agustín, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

Manu Sánchez

– fisioterapia
– osteopatia
– errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
telefonoa: 943 12 70 78

MUGI
FISIOTERAPIA

Eider Mugica Aristondo
669 735 925

Egigurentarren, 18

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu


ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektroterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Estortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Hemen zure tokia izan nahi baduzu
deitu 943-206776 telefonora



GIDA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
Tfnoa: 943 20 19 82

Clínica Oftalmológica RECALDE
Oftalmología Clínica

Plaza Durán, 2 - 2º
Tfnoa: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Ortopedia

**ARRATE OR-
TOPEDIA**

ORTOPEDIA TEKNIKARI TITULATUA

Oin unitatea ordenagailu bitartez
Tailer teknikoak
Kirol medikuntza
Laguntza teknikoak

Zuloagatarren, 7
Tel./Faxa: 943 70 06 31
ortopedia@ortopediarrate.com
www.ortopediarrate.com
OSAKIDETZA eta LAGUN AROrekin egiten dugu lan

Osteopatak

lasaituz
ESCU TERAPIAE

OSTEOPATIA
KIROMASAJEA
REFLEXOLOGIA

Iñaki Azpitarte
ebkez ebeko zerbitzua
659107023
Zezenbide, 1 - behea

Podologoak

- Kiropodia, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

943 12 14 93
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

BIDEBARRIETA 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 zenb. kolegiatua)
Rosarito Rodriguez (125 zenb. kolegiatua)
Amagoia Zubizarreta (122 zenb. kolegiatua)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

Ana Oiarzun

- PSIKOLOGIA
- SEXOLOGIA
- BITARTEKARITZA LANAK (bikotea, familia...)

Blas Etxebarria 2 - behea
Telf. 943 20 08 20 Mobilak. 635 74 62 50

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoak

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
Urtzaile 1, 1. Eskuma 646 233 182

Haur eta Helduentzako
PSIKOLOGIA - PSIKOTERAPIA
RPS: 313/98

Oscar Mondragon Lili
Yolanda Cuartero
Mikel Diez Oregi

ORDUTEGIA: 10.00 - 12.00
16.00 - 20.00

Bista Eder 6 - 1. ezk. 943 70 26 62

teen-ajeak



Nerea Uriguen Sostoako kide gartzeema da. 26 urte ditu eta betidamik gustatu izan zaio abestea eta konretan dirau. Jende gartea Sostoako kide egitera animatzen du.

"Gazte bila gabiltza Sostoa abesbatzan"

- **Notz hasi zinen abesten?**

Txikitari, Musika Eskolan, 8 bat urterekin, txirula eta pianoarekin. Abestea beti izan dut gustoko, horrela, Sostoako kide izatera pasa nintzen orain dela 6 urte. Ama ere musika irakaslea da eta familia aldetik musika beti izan dut presente.

- **Nola sartu zinen Sostoa?**

Ez nuen inolako probarik egin behar izan, beste barik eman nuen izena. Bertan jarraitzen dut oraindik.

- **Abesbatzako gazteenetarikoa izango zara.**

Bai, gazteena naiz. Jendeak ez dezala pentsa dena elizako

abestiak abestea dela, era guztietako abestiak interpretatzen baititugu. Taldean bizi den giroa apartekoa da, kristorena. Gazte, abestea gustatzen bazaizu, Sostoa izena ematera animatu nahi zaitut. Gainera, datorren urtean abesbatzaren 25. urteurrena ospatuko dugu eta hemendik kanpora joango gara kontzertuak eskaintzera: bidaiatzeko aukera ere ematen du Sostoa.

- **Ahotsa nola zaintzen duzu?**

Ez dut erretzen, edan ere gutxi egiten dut, baina ez dut ezer berezirik egiten ahotsa zaintzeko.

Zure enpresa sortzeko "Urrats bat"

Ikasketak amaitu eta orain zer? Lanpostu bila ibiltzea nekagarria eta, askotan, dena bertan behera uzteko gogo ematen du. Lana lortzea ez da batere erraza, askok lan-gabeziako zerrendak loditzen dituzte, beste batzuk gustoko ez dituzten lanpostuak lortzen dituzte eta badaude, zorionekoak, nahi zuten postuan lanean hasten direnak. Oso gutxi dira euren enpresa propioa sortzera ausartzen direnak. Arriskuak handiak dira eta ez-

jakintasuna oraindik ere handiago. 'Urrats bat' programak horrekin bukatu nahi du.

Armeria Eskola eta Uni Eibar-Ermua dira 'Urrats bat' programan parte hartzen duten herriko zentru bakarrak. Ekimen honek Lanbide Heziketako ikasle eta ikasle ohien artean jarrera ekintzailea sortu, eta zentruak enpresen mintegietan bilakatzea du helburu. Horrela, bakoitzak bere enpresa sortzea da helburua autoenplegua bultzatuz.



HOROSKOPOA

ARIES

Zein polita izango litzateke Aratosteak Venezian ospatzea, ezta? Maskarak, gondolak... zeinen polita eta zeinen erromantikoa! Bero, lehenik eta behin zure alboan egoteko norbait aurkitu beharko duzu. Zorte on!

TAURUS

Oso gustoko ez baduzu ere, Aratosteetan koko-jantzia erantsi eta irten egin beharko zinateke. Triste samar zabilta azken egunotan; beraz, irrifarrea sortzen dizun zer-baiten bila ibili beharko zara, egun hauetan behintzat!

GEMINI

Ikasketak, ikasketak. Amezgaitzotak sortzen dizkizute azterketek, baina ikusi bere alde onak ere: zure jakinduria handituko duzu, probetxuzko pertsona bat izango zara... lasai, Aratoste ugari gertatzen zaizkizu aurretik-eta.

CANCER

Eguen, barixaku, zapatu, martitzen... ez duzu egun bat ere lagako atsedena hartzeko! Badaukazu hainbesterako koko-jantzi ezberdinik? Eguaztena heltzen doanean aurreko egunetan egindakoak damutuko zara, edo agian ez.

LEO

Lehoi jantzia ederki geratzen zaitu, baina alperregia zara horrelakoak egiteko, beraz, beste urte bat koko-jantzi triste batekin. Zein izango da aurtengoa? Ea imaginazioari leku gehiago ematen diozu zure buruan.

VIRGO

Zure albokoak barrez lehertuko dira zure koko-jantzia ikustean. Zu bai zu! Hala ere, gauez irtetzen bazar argi ibili, hainbeste jenderen artean soinean daramazun 'artelan' hori puskatu egin daitekeelako.

LIBRA

Etetik korrika irten eta lehen tabernaraino gelditu gabe abiatzen zara. Lotsatuta? Ba bai. Ez dakizu Aratosteetan denak koko-jantzen direla? Lotsa alde batera uzteko egun aproposak dira hauek, ez izan zalantzarik.

SCORPIUS

Ez da beranduegi oraindik, izan ere, ileorde edo karearen bat erosi edo eskatzeko denbora daukazu! Ez daukazu aitzakiarik, zer-bait jantzita irten zaitezke, beraz, kalera! Ikusiko duzu zeinen ondo pasatzen duzun!

SAGITTARIUS

Izarrek Aratoste ederrak biziko dituzula diote. Oso gustoko dituzu egun hauek, mozorrotzea eta abar, eta oso ondo pasako dituzu lagunartean! Garai politikak bizitzen hasi zara eta horrela jarraituko duzu datorren asteotan.

CAPRICORNIUS

Bizitza osoan eskia gabe eta justu orain Pirinioetara zoaz? Aratosteei boikota egitearren edozer gauza egiteko gauza zara! Ba jakizula, herrian kristoren jai giroa egongo dela. Ondo pasa ezazula eta ez hartu min handirik!

AQUARIUS

Ai ene, gripeak ez zaitu bakean uzten! Ondo ez bazaude Aratosteetan kalera irtetzea albo batera utzi beharko duzu, bestera zure kalterako izango da. Horrela, datorren urteko koko-jantzia pentsatzen hasi zaitezke.

PISCIS

Beti koko-jantzi berdinarekin ez zara aspertzen? Bai, argi dago, ez duzu burua nekatu behar zer jantzi pentsatzen, baina, azkenean, egun normal batean ere jantziko duzu oharkabean. Hain pertsona despistatua izanda...

Uni Eibar-Ermua duela urte bi atxikitu zen programa honetara. Iaz hiru proiektu atera ziren aurrera zentru honetan: Ruibal (autuen alokairu zerbitzua), Debatika (zerbitzu informatikoen enpresa) eta TeknoTag (ekitaldi ezberdinetan sartzeko kontrolerako teknologia berrien enpresa). Carmelo Oiarzabalek, Uni-an 'Urrats bat' programaren eragileak, adierazten duenez "enpresa indartsuak dira eta ezustekoa hartuko nuke huts egiten badute".

Oiarzabal pozik azaltzen da 'Urrats bat' programarekin. "Uni-an mugimendu handi asortu duen ekimena da". Urtero 3-4 proiektu aurkezten dira eta Oiarzabalek aipatzen duenez, "guk denak hartu ditugu momentura arte". Aurten beste hiru proiektu ari dira lantzen zentru honetan: English Point (ingeles ikastegia), Kirolzale (kirol emanaldien gestiorako enpresa) eta Linux bidez informatika lantzeko enpresa bat.

Zentruak laguntza handia

Armeria Eskolak lau urte darama 'Urrats bat' programaren barruan. Hainbat proiektu atera dira aurrera Eduardo Treviño-ren gidaritzapean. Otsailaren erdialdean, adibidez, proiektu bi ipiniko dira martxan. Alde



Gazteak euren enpresa sortzera animatzeko oso baliagarria da "Urrats bat" programak ematen duen laguntza.

batetik, tuboak laserrarekin mozten dituen enpresa bat dago. Orain makinak ipintzen ari dira eta milioi bat euro inguruko inbertsioa behar izan du. Beste alde batetik, abiadura azkarreko mekanizazioa zentru mekanizatuarekin lantzen duen enpresa bat dago.

Proiektu bi hauez gain, badaude beste bi lan komertziala garatzen den prozesuan daudenak. Bata, mugikorren bitartez hurbiltasuneko marketina lantzen duen proiektu "bitxia eta polita" da, Treviño-ren esanetan. Bestea, Nova Sun, Energia berriei zuzenduriko enpresa da. Aurretik, gainera, EMA Ergonomia eta Sebas Etxabe bezalako enpresak sortu ziren, eta urte batzuk lehenago beste batzuk.

Bai Uni Eibar-Ermuan, bai Armeria Eskolan, aurkezten

diren lan guztiak onartzen ahalegintzen dira Carmelo Oiarzabal eta Eduardo Treviño koordinatzaileen esanetan. Zentruak laguntza tekniko eta giza-laguntza eskaintzen die proiektua egin nahi dutenei. Horrela, laguntza ekonomikoa, aholkularitza pertsonala, zentruan erabilgarriak zaizkien gauza guztiak eta koordinatzaileen laguntza eskaintzen zaie proiektugileei.

Aukera handia da gazteek enpresa propioa eta, ondorioz, lana edukitzeko. Hala ere, Oiarzabalek azpimarratzen duen bezala, "bakoitzak hankak lurtean eduki behar ditu eta ez dute jauririk eman behar behean ura dagoen edo ez jakin gabe". Pertsona ekin-tzaileentzako programa bat da 'Urrats bat'. Lan munduan sartzeko urratsa.



Alkohola: kontsumoa eta gehiegikeria

Heldu dira Aratosteak eta baita ondo pasatzeko gogoia ere. Ondo pasatzea, ostera, alkoholaren kontsumoarekin edota beste kontsumo mota batzuekin lotzen dute askok. Kontsumo motak aldatu egin dira, eta orain badirudi garrantzitsuen lehenbailehen mozkitzea dela. Amatxo gisa aritzeko naitzaizue apur bat, hala jarduten dutenek edo duzenok ez dakizuelako benetaren izen kaltegarria den alkohola horrela kontsumitzea. Adikzioetan espezializatutako aditu kliniko talde batek honela dio: **mozkortu arte edateak** larriki gutxitzen du arrazoitzeko ahalmena eta erabakiak hartzeko, eta auto-kontrolerako gaitasuna ere galdu egiten da. Egora horretan, bulkada sexualak eta erasokorrak izaten dira desinhibiziorako joera izaten baita, eta ondorioz eztabaidak, borrokak, erasoak, planifikatu gabeko sexu harremanak... ematen dira. **Nolzbehinkako kontsumo arriskutsuak** ere kezka-garriak dira. Edateko ohiturarik ez duenak, noiz edo noiz, egun berean eta ordu gutxi-tartean, hainbat kontsumizio hartzen baditu alkoholzalekeriak eragiten dituen gaixotasun berberak pairatuko ditu. Gainera, aditu talde honek azpimarratzen du adolezentsian edaten hasten direnek nagusi egiten direnean askoz ere erreztasun handiagoa izango dute alkoholzalekeria edota mendekotasuna pairatzeko.

Gogoan izan, alkohola hartu daitekeela ondorio kaltegarriak izatera heldu gabe; neurritz edanda. Eta Eusko Jaurlaritzako iragarki batek dioen bezala: **Alkoholik adingabeak? Tantarik ez.**

Mendiluze Iturburun bertsoan

Juan Antonio Mogel ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleak Aitor Mendiluze bertsolariarekin egon ziren orain egun batzuk. Gipuzkoako Bertso Txapelketako txapela Mendiluzek eskuratu zuela-eta, txapeladuna zoriondu nahi izan zuten ikasleek eta bertso pare bat eskaini zizkioten. Nola ez, Mendiluzek beste bertso batekin erantzun zien.



Zorionak txapeladun

Begi urdin ta altua	Zu Aitor Mendiluze
Gure Mendiluze	Zara txapeladuna
Aurten ere famatu	Hurrengo urtean berriz
Hurrengo urterarte.	Izan nahi duzuna.
Segi zazu abesten	Ez da lehen aldia
Gure maisu maite	Ezta ez azkena
Zu baitzara onena	Txikitatik daukazu
Zalantzarik gabe.	Bertsolari sena.

Erantzuna

Guzti hau niregatik	Baina guziak gera
Jo, benetan, ze guay!	Hori lortzeko gai,
Eskerrak ematea	Niretzat posible da,
Besterik ez dut nahi.	Zuentzat ere bai.

Jalone Azkue
(DROGOMENPEKOTASUN
TEKNIKARIA)

Arrate-Portland, Ligari berriro heltzeko

Eskubaloiko Asobal Ligako bigarren itzulia hasteko, Arratek Portland San Antonio talde nafarra hartuko du domekan Ipurua kiroldegian. Partidua 18.00etan hasiko da eta ETB-1eko kamerak zuzenean eskainiko dute. Azken aste hauetan Europako txapelketa izan da jokoan Norvegiar eta, hori tarteko, hemengo ligan ez da partidurik izan; Eibarko taldeak lagunarteko norgehiagoka bi jokatu ditu (CAI Aragonen eta Teka Cantabriaren aurka), biak galduz. Jokalari garrantzitsuak falta izan ditu partidu horietan, lesioengatik kasu batzuetan eta euren selekzioekin zihartzutelako besteetan. Orain izango da unea ikusteko zelan hartzen duten berriro konpetizioaren martxa, berezko zailtasuna duen partiduan, nafarrak Ligako onenetakoak baitira.



Kopan Ademar lehenengo

Apirilaren 16tik 20ra Zaragozan jokatu den eskubaloiko Erregearen Kopan, bestalde, Arratek Leongo Ademar izango du aurkari final laurdenetako partiduan. Horko irabazleak Ciudad Real eta Antequeraren arteko irabazlearen aurka neurtuko ditu indarrak finalera iristeko. Urteak dira Eibarko taldea Erregearen Kopan parte hartzeko sailkapenik ez zuela lortzen: sailkapeneko 7. postuan egoteak ahalbidetu dio Zaragozan izatea.

Arrate-Bidasoa lehia

Jubenil eta kadete mailetako urteko neurketa garrantzitsuenen aurrean izango gara gaur bertan. Maila bietan irundarren eta eibartarren arteko lehia zuzena izaten da ia urtero txapel-dun zein izango den erabakitzeko eta, horregatik, asteburu honetako partiduek balio bikoitza izango dutela esan dezakegu. Jubenil mailakoa 19.00etan jokatu da eta, horren amaieran, 20.30etan, kadeteen artekoa.

1. Nazional mailako taldeak, bestalde, Hondarribian jokatu

du bihar aurreko domekan Ipuruan Trapagarani 33-24 irabazi eta gero. Sailkapeneko 4. postuan jarraitzen dute eibartarrek.

Denboraldi erdirako harpidetza

Asobal Ligako taldearen 2. itzulia hasi behar den honetan, ohikoa denez, Arratek zaletuen eskura ipintzen du denboraldi erdirako harpidetza egiteko aukera. Prezioak honakoak dira: gaztetxoaren kasuan, 15 euro; jubenil eta jubilatuenen, 30; helduenean, 60; familia harpidetza-arenean (harpide bi), 125; eta enpresaren kasuan (lau harpide), azkenik, 250 euro. Informazio gehiagorako, 943-255001 telefono zenbakira deitu daiteke. Bulego ordutegiak honakoak dira: 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara

Garaipen bikoitza Deporreko xakelariarentzat

Emaitza berbera lortu zuten 1. zein 3. mailako taldeek asteburuan eta kanpoan jokatzeko zorte ona ekarri zuten oraingoan eibartarrei. Haritz Garro, Diego Olmo eta Jon Arana irabazle izan ziren euren partidetan eta bakkarrik Manuel Lópezek galdu zuen Mutrikun, hango Txaturanga taldeko ordezkariaren aurkako norgehiagokan. Deportiboko lehenengo mailakoen nagusitasun hori Azkoitian ere islatu

zen, oraingoan hirugarren mailako taldea protagonista zela: Emilio Freire, Mikel Larreategi eta Aitor Arroitauregi nagusitu ziren bitartean, Edu Olabek galdu egin zuen bere partida Anaitasuna-Kakute B taldeko ordezkariarekin.

Bihar gure herriko xakelarietxuean jokatu dute, 16.00etan hasita, eta 1. zein 3. mailakoek Arrasateko San Andresko ordezkariak izango dituzte aurkari.

Txapelketako finalaurrekoaren bila domekan Astelenan

Berdintasuna da nagusi Eskuz Binakako txapelketako ligaxkan. Finalaurrera iristeko lau jardunaldiren faltan, oraindik ez dago ezer erabakita eta edozer gauza gerta liteke.



Astelenak Xala-Pascual Bengoetxea VI-Peñagarikanoren arteko neurketa jasoko du domekan 17.00etatik aurrera, eta bigarrenen garaipen batek lehenak finalurrean sartzeko borrokatik hurruntzea ekarriko luke.

Peñagarikanok Patxi Ruizen lekua hartu du Bengoetxea VI-aren alboan, izan ere, Lizarrakoak eskua min hartuta dauka, beraz, azpeitiarrak jokatu du bere partez. Xalaren presentzia, bestetik, zalantzan zegoen, baina eguaztean hainbat froga egin ostean, lapurtarrak jokatzeko erabaki zuen.



**San Andres
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta 28
☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladook

NTRA. SRA. DE BEGOÑA EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai 4-6 behe, ezkerre ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 20 10 95 Faxa: 943 20 25 64

Zazpi domina Deporreko eskiazaileentzat Euskadikoan

Zapatuan eta domekan Euskadiko eski txapelketak izan ziren jokoan Candanchuko pistetan eta Klub Deportiboko sei eskiazailek hartu zuten parte bertan, hiru gizonezkoak eta beste hiru emakumeak. Klasiko modalitatean, Leire Garate txapelduna izan zen juniorretan (5 kilometroko proban) eta Naia Carballo eta Zigor Garcia azpitxapeldunak; Zigor 2. geratutako proban, Roberto Izagirre 4.a izan zen eta Arkaitz Irureta 5.a. Aurrekoa zapatuan

jokatu bazen, domekan eskatin modalitateko ordua iritsi zen eta hor Leire Garatek garaipena errepikatu zuen; berak lortutako emaitzari, hiru bigarren postu gehitu behar zaizkio. Amaia Garatek kadeteetan (10 km) eskuratu zuen berea, Zigor Garciak seniorretan (hor Arkaitz Irureta 4.a izan zen) eta Roberto Eizagirrek Master mailan.

Aurretik, hamabost egun lehenago, Stadium Casablanca lehiaketa izan zen jokoan Somporten eta hor ere Leire Gara-



tek irabazi zuen klasiko modalitatean jokaturako junior mailako 10 kilometroko proba. Distantzia bereko senior mailakoan, Naia Carballo 4.a izan

zen eta, 15 kilometroko gizonezkoen seniorretan, Zigor Garciak 20. amaitu zuen, Roberto Izagirrek 24. eta Jesus Telleriak 27. postuan.

2. Erregionaleko Eibarko talde bi igoera fasean

Gazteak eta Eibartarrak B sailkatu dira, Ligan lehen fasea amaituta, igoera fasea jokatzeko. Gazteak azken sailkapeneko 2. postuarekin egin da, gainera, eta Eibartarrak-en bigarren taldea doi-doi sailkatu da, seigarrena izan baita. Urkik, gure herriko hirugarren taldeak, Kopa jokatu du, azkenean 8. postuan amaitu baitu. Azken jardunaldian,

Urkik bana berdindu zuen Unben Ikasberrarekin eta beste biek kanpoan irabazi zuten: Gazteak-ek 0-4 Zestoan eta Eibartarrak-ek 0-1 Anaitasuna B-ren zelaian.

Preferente mailako Eibartarrak-eko lehenengo taldea, bestalde, sailkapeneko azken postuan dago, 17 punturakin. Asteburuan galdu egin zuen Arrasaten, 2-1 Mondragonekin.

Urki txapeldunen Ligan

Nesken infantil mailako taldea garaipenak bata bestearen atzetik biltzen dabil eta, asteburuan hasi berri zuten txapeldunen ligan, 2-4 nagusitu ziren Legazpin Ilintxaren aurka-ko partiduan. Irati, Atristain eta Amaia izan ziren goleatzaileak eta



eibartarrek egindako jokoak emaitza nabarmenagoa ere merezi izan zuen. Zortzi talde dira eta bakarrik lehenengoa sailkatuko da Gipuzkoako finala jokatzeko eta, ondoren, Euskadiko txapelketa, Bizkaiko eta Arabako ordezkari irabazleekin.

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

REAL SOCIEDAD - S.D. EIBAR
Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eta **Herri Irratiko**
kiroletako taldearekin
Otsailak 2 zapatua, 18.30etan

90.7 Fm

Reala-Eibar derbi interesgarria Anoetan bihar arratsaldean

Realak eta Eibarrek domekan Anoetan jokatuko duten gipuzkoarren arteko bigarren itzuliko derbiak Eibar Foball Taldeko zaletuen interesa piztu du eta mila lagunetik gora Anoetarantz joango direla aurreikusten da. Neurketa historikoa da hau, talde gorriurdinak Anoetan jokatzen duen lehen liga partidua baita.

Eibar FTK eta Premier Bidaiak lau baigoiko tren bi antolatu dituzte zaletu armaginak partidua ikustera erreztasun osoarekin joateko, baina eguaztenerako era honetan joateko salgai zeuden txartel guztiak agortu egin ziren. Horrela, autobusak ipini dira trenen ordu-tegi eta prezio baldintza berdinekin.

Sarrerak 25 eurotan

Tren bi egongo dira: txartel horia duen trenea 10.50etan irtengo da Estaziñotik eta 21.10etan bueltatuko da

Anoetako geltokitik. Txartel horiduna, berriz, 10.50etan Estaziñotik irtengo da, bestea bezala, baina 22.50etan bueltatuko da Anoetatik. Autobusak, bestetik, 10.50etan irtengo dira autobus geltokitik eta 21.00etan bueltatuko dira.

Bai trenaren, bai autobusaren prezioa 8 eurokoa izango da. Eibar FTK, bestalde, 950 sarrera zituen salgai, hasiera batean, euren bulegoetan, bakoitza 25 eurotan. Hauek eskuratzeko bide bi daude: bata, Premier Bidaiak-en bulegoetara joatea da (09.30etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.30etara), baina hemen neurketarako sarrera eta bidaiaren txartela batera erosi behar izango da derrigorrez; eta bestea, Eibar FT-ren bulegoan (17.00etatik 20.00etara), sarrera eta txartela bakoitza bere aldetik edo elkarrekin eskuratzeko aukera izanda.

Kenci eta Mondaine irabazle areto-foballean

Garrido, Quintana eta Agirre izan ziren Kenciren goleatzaileak Azpeitiako taldearen aurkako partiduan, azkenean euren aldeko 3-2koa eskuratzeko. Kenci 1-2 galtzen ere joan zen eta garaipena azken segundotan erdietsi zuen. Jubenil mailako partiduan, bestalde, Relojos Mondainek 1-4 irabazi zuen Azpeitian, honakoan ere Azpeitiakoaren aurrean, lehen itzuliko azken neurketan. Asteburuan gure eskualdeko hiru taldeek kanpoan jokatu dute: Gipuzkoako 2. mailan, Tribuna Norte eta Kenciren artekoa izango da Donostian; jubenilen mailan, Relojos Mondaine ere Donostiara joango da, han Deutsche Bank-i aurre egiteko; eta kadeteetan, Antoniano-Debabarrena jokatu da Zarautzen.



Aretako pelota torneoaren Jon Bengoetxea atzelariarentzat



Aurreko barixakuan Jon Bengoetxeak txapel berria gehitu zion bere bildumari, oraingoan Usansoloko Beitia lagun zuela aurreko koadroetan. Ez zen partidu erraza izan, baina azkenean 22-18 nagusitu ziren Beitia-Bengoetxea eta Eibarko atzelaria izendatu zuten finaleko pelotari onena moduan. Norgehiagoka horretan izandako goi mailako erritmoa ez zen oztopo izan Bengoetxearentzat 18 ordu geroago takoak ipini eta Gernikan buruz-buru Zubiagari aurre egiteko. Ordubeteko iraupena

izan zuen borrokan, 300 pelotakadatik gora eman ziren eta eibartarrak 22-17 irabazi zuen, modu horretan urrats garrantzitsua emanez Euskal Ligan.

Euskal Liga horretako jardunaldi berria jokatu da bihar Ipurua kiroldegiko frontoian. 17.00etan hasita, partidu bi izango ditu jaialdiak; lehenengoan, Klub Deportiboko Labaka-Egaña bikoteak Ropón-Ugartemendia Amezketako ordezkariak izango dituzte aurrez-aurre eta, ondoren, Bengoetxeak Ongai irurtzundarra hartuko du buruz-burukoan.

Rugbilarien garaipen erraza

Puntu bakarrera jarraitzen dute sailkapenean Eibar Hierros Anetxeok azken jardunaldian Getxori 3-44 irabazi eta gero. Zortzi entsaio lortu zituzten guztira eibartarrek eta, garaipenaz gain, puntu bonusa atera zuten Daniel Nemanek entrenatzen dituen jokalariek. Atlético San Sebastián liderak ere puntu bonusak lortu zuenez bere partiduan, aldeak lehenengoan jarraitzen du.

Garitano
1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetakoko TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Dalenciaga BEHERAPENAK
Konfekzioak

☎ 943 20 22 33 Zuloagatarren, 7

San Andres elizari buruzko liburua

Aurreko barixakuan aurkeztu zuen Satur Peñak 'San Andrés de Eibar' liburua San Andres parrokian. Aurkezpenak jende asko erakarri zuen, herrikoak bertakoak eta baita kanpotik etorritakoak ere. Aurkezpenaren hasieran lanaren bultzatzaileetako bat izan zen Fernando Beorlegi zena gogoan izan zuen egileak, Fran Lasuenen biolinak, Beorlegiren irudiak eta Mikel Beorlegi artistaren semearen berbek lagunduta. Ondoren, Mari Jose Telleria kultura-buruak hartu zuen hitza, udalaren esker ona erakusteko eta gero Xabier Zubizarreta parrokoaren txanda ailegatu zen. Satur Peña egileak liburuan jasotako guzuzarik bitxienak komentatzeko apro-



betxatu zuen aurkezpena. Peñaren liburua mar-dula da, argazki ugariarekin osatutakoa, eta besteak beste Aierbe liburudendan salgai ipini dute.

Sostoakoak Santa Ageda batzen

Urteroko ohiturari kale egin barik, Sosta-ko abesbatzako kideak Santa Ageda bezper-
an kalejira egingo dute, koplaka kalerik
kale ibiltzeko. Datorren urtean 25 urte beteko



duen abesbatzak Toribio Etxebarria kalean hasiko du ibilbidea, astelehenean 19.30etan. Hortik abiatuta Txirio Kalen, Calbetónen, Ibarkurutzen eta Urkizun abestuko ditu santari eskainitako koplak eza-gunak. Santa-eskea amaituta, Auzokoak Urkizu aldeko sozietateen elkarteak gonbidatuta, Bekuak elkarte gastronomikoan emango dieten afarian indarrak berreskuratzeko aukera izango dute. Kalejiran batutako dirua urtero elkarteren bati eman ohi diote, euren jardunari laguntza eskaintzeko asmoarekin eta aurtun Gautena elkarteari emango diote jasotako dirua. Gautenak autismoa eta antzerako gaitzak dauzkaten laguntzen die eta elkarteko kideen senitarteko eta lagunek Sostoako-
ei lagunduko diete asteleheneko saioan.

Oskorri eta Cielito Coliseoan

Azken asteotan entsaiatu ostean, Coliseoak Cielito Musika Banda eta Oskorriren kontzertua jasoko du domekan 18.00etatik aurrera. Oskorri, 35. urtemuga ospatzeko, disko berria ateratu bere errepertorio historikoan oinarrituta Bilboko Udal Bandarekin, 'Banda Band'-ekin, grabatutakoa.

Oskorriren proiektu berri ho-

netan, taldea herriz herri joango da eta kontzertuak eskainiko ditu tokiko bandekin batera.



Horrela, Eibarren Cielito Musika Bandarekin eskainiko du kontzertua Natxo de Felipek gidatzen duen taldeak.

Kontzerturako sarrerek 10 euroko prezioa izango dute eta hauek eskuratzeko bide ezberdinak daude. Sevikutxa/Te-

lekutzaren bidez (943-001200) edo interneten www.kutxa.net helbidean eskura daitezke, edo bestela, emanaldia hasi baino ordubete lehenago Coliseoan.

Laburrak

ZINEMA OPERATZAILEAK

Zinema operatzaileek, San Juan Bosco euren patroia omenez, bazkaria izango dute bihar 13.00etatik aurrera Urko jatetxean. Bazkaldu aurretik, urteroko batzarra egingo dute.

KOKEIN-EN DISKOA

Eibarko Kokein musika taldeak bere azken lanaren aurkezpena egingo du datorren astean, hilaren 8an, 22.00etan Coliseo antzokian. Kontzerturako sarrerek 6 euro balio du eta ohiko bideei jarraituta eskuratu daitezke.

EMAKUMEEN LANAK

Kultur Eibarko emakume artisten artelanen erakusketa egingo du Topalekuan martxoaren 7tik 16ra. Nahi duten emakumeek har dezakete parte erakusketan, bakoitzak lan bat aurkeztuta. Parte hartu nahi duenak otsailaren 20rako eman beharko du izena, honako telefono zenbakietara deituta: 943200580 (Elisabet) edo 617747569 (Mari Fran).

ARTZAINAK ILLUNABARRIAN

Otsailaren 27an izango da hurrengo hitzaldia, ...eta kitto! Euskara Elkarteak hilean behin antolatzen duen 'Illunabarrian' saioaren barruan. Otsaileko saioaren gaia 'Artzainak Ameriketara' izango da eta horri buruz berba egiteko Fermin Zelaieta eta Jose Mari Arretxea gonbidatu ditu Euskara Elkarteak. Hitzaldiari laguntzeko gaia-
ren inguruko ikus-entzunezkoa eskainiko dute.

Maitane Castillo Otaolaren 1. urteurrenean

"Lagun onak aldentziak sortzen daben miña

denborak osatzen ei dau, baiña ez dakagu ezer

osatzeko; guretzako ez zaralako iñoiz juango"

Ustekabeko lagunak



Akordioa

Inkestetan agertzen denez, jendeak politikoen arteko akordioa nahi du, horrela arazoak konpontzeko.

Eibarren, behintzat, akordioa egon badago. Ea zeruko (zentzuzko) argiak orientatzen dituen gure herriko arduradunak. Amen.

Sozialistak, EAJ eta EA gobernuan daude, eta PP eta EB-Aralar kanpoan geratu dira, baina akordio batzuekin. Azken finean, alderdi guztiek daukate, gutxienez, lagun bat udaleko lanetara dedikatutakoa.

Holan esanda, etortzen den lehenengo ideia da talde guztiek diru interesa daukatela udaleko kontuetan. Eta hori da, gainera, gehien entzuten dudana kalean.

Teorian, akordioa izateak ekarri beharko luke denon arteko proposamenak elkarrekin egitea; ematen du denok aberastuko direla denon argumentuak entzunez...

Kaleak dio txikiak arrimatu direla diruaren lekura, saldu direla, Arriolak berak nahi duena egingo duela, etabar.

Zaila dute oso, politikoei, bere irudi txarra aldatzeko.

Irudia, eta euren lana, hobe zeko ideiak behar dituzte, noski, baina baita dirua ere; soldata, eta ona. Amaitu dira borondatezko lanak. Berez, soldata onak ez du erabaki onak ekartzen, baina laguntzen du. Eta holan ez bada beste batzuk ipini beharko dira.

Ea ba, akordioa egiteko esperientzia horrek balio duen Txontako proiektua denon arteko konponketekin aurrera egiteko.

Iñaki Zubillaga

Aratoste giroa Kulturean

Arrate Kultur Elkarateak ekitaldi bereziak antolatatu ditu Aratosteetarako. Aurreko zapatuan Ermuko Alain Domínguez aktorea Arrate Kultur Elkaratearen egoitzan izan zen, koko-jantzeko orduan makillajea nola erabili daitekeen erakusten. Doaneko tailerra izan zen eta hainbat lagunek hartu zuen parte. Besteak beste, begietako arkatx beltzarekin lagunduta edozein koko-jantzi nola dotoretu ikasi zuten tailerrean parte hartzera animatu ziren gazteek.

Eguen Zuri lehiaketa

Bestalde, urteroko moduan Eguen Zuri argazki lehiaketa martxan ipini du Kulturk. Aurten hamaikagarren edizioa beteko du lehiaketak eta, antolatzaileen berbetan, *"lehiaketaren bidez, nolabait, Aratoste edo Kamaballetako oroitzapen fisikoa gera*



LEIRE ITURBE

dadin bilatzen dugu. 'Aratosteak' da gaia eta aurkezten diren argazkiak ez dira derrigorrez Eibarko Aratoste edo Eguen Zurian ateratakoak izan behar". Lehiaketa irekia eta libre da zaletu guztientzat. Partehartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkeztu ditzake eta argazkiak edozein tamainatan, koloretan, nahiz zuri beltzean aurkez daitezke. Hori bai, 20x30 zentimetroko soportea edo passpartout-

a izatea eskatzen da. Argazkiak Arrate Kultur Elkarateko egoitzan (Zuloagatarren kalea, 3) laga beharko dira, lehen solairuko bulegoetan edota tabernan. Argazkiak lagatzeko azken eguna martxoaren 4a izango da. Argazki onenarentzat 160 euroko saria egongo da, bigarrenarentzat 100 eurokoa eta hirugarrenarentzat 60 eurokoa. Aukeratuak argazkiak Kulturk erakusgai ipiniko dituzte.

Agur Lagun Taldearen hotelari

Lagun Taldeak bere hotelaren ateak itxi zituen zapatuan. Elkarate honek 'Lagun Taldea hotela' izenburuko ikuskizuna eskaini du Hezkuntza Esparruan azken asteburu bietan eta bietan arrakasta handia lortu dute neska-mutiek. Musika eta antzerkia batuta, dantzan egiteko aukera ere izan zen ekitaldian. Ikuskizun egunetan egin zituzten zozketetan, berriz, otar bi banatu zituzten. Irabazleak 6.691 eta 5.678 zorbakiak izan dira eta irabazle biek jaso dituzte otarrak. Bestalde, Lagun Taldea-koek eskerrak eman nahi dizkiete taldeko kideei emandako zorion eta laguntza guztiengatik.



LEIRE ITURBE

Juan Martin Elexpuru 'Harixa emoten'




AINHOA LUZ



Harixa emoten' ekimenaren barruan, Juan Martin Elexpuru idazlea egon zen...eta kitto! Euskara Elkarateko lokaletan martitzenean. Bergararrak 'Hamaika ipuin' eleberraren gainean egin zuen berba, eta bertan bildu zirenek lan honen inguruan bere iritzi eta inpresioak egilearekin trukatu ahal izan zituzten.

'Hamaika ipuin' eleberriak azken hamarkadetakoa kronika bat egiten du, Gerra Zibileko kontuetan hasi eta sakeleko telefonoaren menpe dagoen enpresagizon baten bizitzan amaituz.



Joxe Azurmendiren lana kalean

Juan San Martin beka eskuratu zuen Joxe Azurmendik bere lanaren aurkezpena egingo du datorren astean, eguenean, 18.00etatik aurrera Markeskua jauregian. Azurmendiren lanaren ardatza Humboldt hizkuntzalaria izan da eta lanaren izenburua, berriz, 'Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua'.



MATEO GUILABERT

Deporreko argazkilarien erakusketak

Klub Deportiboko argazkilaritza taldeko kideen taldekako erakusketa domekara arte Topalekuan ikusgai izango da, gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Hala ere, otsaila osoan zehar hiru argazkilarien lanak herriko hiru tabernatan ikusteko aukera izango da: Mateo Guilaberten argazkiak El Ambigú kafetegian daude ikusgai, Alberto Lukerenak Klub Deportiboko tabernan eta Alejandro Bergararenak, berriz, Portalea tabernan.




LEIRE ITURBE

Otarra sanblasak erosteagatik

Aldatze ikastetxeok San Blas opilak saldu zituzten aurreko asteburuan, ikas-bidalarako dirua lortzeko. Salmenta ondo joan zitzaizen neskei eta erosleen artean otar ederra zozketatu dute. 478 zenbakia duenak eramango du otarra etxera, baina saria jasotzeko Aldatze ikastetxera deitu beharko du (943701150), saria noiz eta nola jaso behar duen zehazteko.

Aratosteak eta San Blas eguna batera ospatzen dira aurten. Horrela, 'Bakillauaren Kofradixak' San Blas opilen lehiaketa antolatu du domekarako 12.00etan Untzaga Plazan. Parte hartzeko, San Blas opil bat besterik ez da eraman behar. Aratoste goxoak, beraz.



JESUS MARI MURUA, BAKILLAUAREN KOFRADIXAKO KIDEA: "San Blasa egiteak ez dauka inolako sekreturik"

- Aurten Aratosteak eta San Blas eguna asteburu berean ospatzen dira. Batak bestea bultzatzeko ballo izango du?

Iaz, 'pella' lehiaketa egin genuen eta oso jende gutxi joan zen, 5 lagun bakarrik. Lehiaketak publizitate gutxi izan zuen eta hori izan zen errua. Horren ostean, kofradiakoek proposatu genuen, nola aurten San Blas eguna eta Aratosteak batera ospatzen ziren, San Blas opilen lehiaketa egitea. Horrela, Udaleko arduradunarekin berba egin genuen eta ideia ona iruditu zitzaion. Horrelako ekintzetan gero eta jende gehiagok parte hartzea nahi dugu, publizitate gehiago egin behar dugu. Bestalde, kalean eta inguruan entzun dudana, esan dezaket jendea animatuta dagoela lehiaketaren aurrean. Askori lotsa ematen die, baina horrela bada, lagun edo familiaiko bati opila eman eta kitto.

- Jendearen harrera nolakoa izatea espero duzue?

Askok galdetu digute, gu Bakillauaren Kofradixak izanda, nola antolatu dugun San Blas lehiaketa. Guk nahi duguna da eibarrentzat eta eibarrentzat zerbait egitea. Horrela, jendeak parte hartzea espero dugu. Kofradiakoek egin dugun afari guztietan bakilaua eta San Blasak jan ditugu soilik.

- San Blas egunak garrantzia

handla dauka Eibarren. Urteak aurreran joan ahala ohitura horrek jarratuko duela uste duzu ala galtzen ari da?

Bai, beno, ohitura ez da galdu, baina bai San Blas etxean egiteko ohitura. Orain dendan erosten da eta Eibarren San Blas asko jaten da, agian lehen baino gehiago, baina etxean ez da egiten. Bestean batek kalean zera esan zidan: "ez zara konturatu eguneroko ogiak San Blas zapore piska bat daukala?", eta arrazoia daukala uste dut.

- Zein da San Blas goxoa egiteko formula magikoa?

Nik uste dut ez dagoela formula magikorik. San Blasa egiteko arraultza, azukrea, hirina eta beste gauza batzuk behar dira, baina ohikoak diren osagai horiez gain manteka, gurina eta gantza behar dela uste dut. Zein den onena? Auskalo, bakoitzak bere gustuak izango ditu. Baina San Blasak ez dauka sekreturik.

- Belaunaldi berriek zaharrenean San Blasak hobetzen dituzte?

Ez dakit. Duela egun batzuk etxean egindako San Blas bat oparitu zidaten, eta hura jan edo dendakoa jan, badago aldea. Etxera ekarri zutenean, "zein biguna dagoen", esan nuen, baina zoragarrri zegoen. Dendakoak, berriz, gogorragoak izaten dira normalean. Zein den hobea? Ba ez dakit.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea....	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdia...	943 46 46 22
Gurutze Gorria....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneratik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdio). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdio. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egutegia: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

EURIA ETA HOTZ

Gaur arratsaldetik aurrera euria egingo du eta zaparrada indartsuak espero dira. Elur-kota 1.000 metrora kokatuko da. **Zapatuan** hobera egingo du, baina goizean oraindik euriak jarraituko du. Elur-kota 800 metrora jaitzi eta giro hotza nagusituko da. **Domekan** tenperaturak gora egingo du.

**2
zapatua**

SAN JUAN BOSCO

13.00.- Deba bailarako zine kabina-operatzaileen urteroko bilera. Urko jate-txean.

**ERROTA
GAZTELEKUA**

18.00.- Koko-jantzi lehiaketa eta diskoteka. Errota gaztelekuan.

**3
domeka**

**TXISTULARIEN
KALEJIRA**

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren Aratosteetako kalejira.

SAN BLAS

Goizean zehar.- Herriko elizetan, San Blas opilen bedeinkapena.

**SAN BLAS
LEHIAKETA**

12.00.- San Blas opilen lehiaketa. Eibarko Baki-lauaren Kofradixiak eta Udalak antolatuta. Untzagan.

ATE IREKIAK

15.00.- Hitzaldia: 'Munduari buelta bizikletaz', Lontxo Rojorekin. Udala Euskaltegian.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'Alvin y las ardillas'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

BANDA BANDA

18.00.- 'Banda Banda' Oskorri eta Cielito Musika Banda. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

**4
astelehena**

IKASTEN

16.00.- Sendabelarren foroa. Artea eta Erramua. Portalean.

SANTA AGEDA

19.30.- Santa Ageda batten. Kalejira, T. Etxebarria, Untzaga, Txirio Kale, Calbetón, Ibarkurutze eta Urkizun. Piskolabisa Be-kuak elkartean.

**5
martitzena**

IKASTEN

09.30etatik 12.30etara.- 'Historia del pensamiento político' (1. zatia), Miguel Arroita Jauregirekin. CE-PAn (Isasi, 39).

HITZALDIA

18.30.- Hitzaldi zikloa ikastetxeetan. 'Araoak ematen dituzten kontsumoen prebentzioa'. Ignazio Zuloaga institutuan.

**6
eguztana**

IKASTEN

19.30.- Kaleetan kantuz. Entsaioa. San Andres elizako lokaletan.

lehiaketak

**XI. Eguen Zuri
Argazki Lehiaketa**

Gaia: Aratosteak.
Epea: **Martxoaren 4ra arte.**
Informazioa: Arrate Kultur Elkarte edo www.eibar.org/blogak/kultu.

**II. Industriagintzari
buruzko argazki lehiaketa**

Gaia: Industriagintza.
Modalitatea: Euskarri digitaletan.
Epea: **Martxoaren 14ra arte.**
Informazioa: Armeriako Iksale Ohien Elkartean (aaa@armeriaeskola.com).

**7
egutena**

IKASTEN

10.00etatik 12.30etara.- 'Revalorización de la sexualidad' (2. zatia), Ana Oiarzun. CEPAn (Isasi, 39).

**ANTZERKI
JARDUNALDIAK**

17.00.- Giza irudien VI. erakustaldia. Untzagan eta Toribio Etxebarria kalean.

**EGO IBAR
ZINE-KLUBA**

17.30.- 'Algo parecido a la felicidad'. Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

LIBURU AURKEZPENA

18.00.- 'Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua'. Egilea: Joxe Azurmendi. Markeskuan.

HITZALDIA

19.00.- Hitzaldi zikloa ikastetxeetan. 'Los adolescentes de hoy en día'. La Salle Azitain.

erakusketak

Otsailaren 3ra arte

Fernando de Vicenteren 'Bartleby' erakusketa.
Portalean.

Aratosteak 2008 kartelen erakusketa.
Portalean.

Deporreko Argazki Taldeko kideen argazki erakusketa.
Topalekuan.


Otsailaren 28ra arte

Mateo Guillabert-en argazki erakusketa.
El Ambigú kafetegian.


Alberto Lukeren argazki erakusketa.
Deporreko tabernan.

Alejandro Bergararen argazki erakusketa.
Portalea tabernan.

denborapasak



Aurkitu hemen Arrate bailarako 15 baserriren izenak.



Aurrekoaren SOLUZIOA

farmaziak

1. barixakua

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

2. zapatua

GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

3. domeka

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

4. astelehena

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

5. martitzena

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

6. eguaztena

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

7. eguena

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

8. barixakua

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

jaiotakoak

- Oihan Arosa Gutiérrez. 2008-I-18.
- Julen Canales Díez. 2008-I-18.
- Imanol Agirresarobe Mora. 2008-I-21.

hildakoak

- Sor Carmen Aranegi Larrañaga. 87 urte. 2008-I-21.
- Catalina Egaña Txurruka. 83 urte. 2008-I-25.
- M^a Luisa Irurzun Garrido. 76 urte. 2008-I-25.
- Tomasa Albizu Arregi. 91 urte. 2008-I-27.
- Jose Mairena González. 75 urte. 2008-I-29.
- Felipe Arakistain Azpiri. 73 urte. 2008-I-29.
- Cristina Nieto Urriza. 88 urte. 2008-I-30.
- Isabel López de Zubiria Escobar. 88 urte. 2008-I-30.

zinemazinemazinema



untzaga

“Los crímenes de Oxford”


ZUZENDARIA:

Alex de la Iglesia

AKTOREAK:

Elijah Wood, John Hurt, Leonor Watling, Julie Cox.

Emakume bat hil dute Oxford inguruan. Arthur Seldom irakasleak eta Martinek elkar ezagutuko dute horren ondorioz. Baina, ez da hori izango hilketa bakarra, eta guztiak dute zer edo zer amankomunean...



coliseo

“Redacted”

ZUZENDARIA:

Brian De Palma

AKTOREAK:

Izzy Díaz, Daniel Stewart, Patrick Carroll, Mike Figueroa...

Irak-en gertatutako sarraski handienetako izan zen Mahmudiyan gertatutakoa. Vietnameko gerran pasatutakoarekin egin zuen moduan, De Palmak horrelakoak kritikatzeko ditu, eta erarik gordinean erakutsi...



amaña

“La búsqueda 2”

ZUZENDARIA:

Jon Turteltaub

AKTOREAK:

Nicolas Cage, Jon Voight, Harvey Keitel, Ed Harris.

Ben Gates-ek altxor berria aurkitu behar du, baina oraingoan gainera, bere birraitona zenaren izen ona zaindu behar du, Lincoln-en heriotzarekin lotu baitute. Munduan dagoen altxor handienetakoak du guztiaren erantzuna...



ego-ibar

“Algo parecido a la felicidad”

ZUZENDARIA:

Bohdan Sláma

AKTOREAK:

Pavel Lika, Tatiana Vilhelmová, Anna Geislerová, Marek Daniel.

Monika, Tonik eta Dacha lagunak dira txikitatik. Bakoitzak bere bizitza eta arazak ditu, baina Dacha psikiatrikoan sartzen dutenean, beste lagun biek zainduko dituzte Dacharen bi semeak eta bizitza aldatu egingo da...

ETXEBIZITZAK

- Logela alokagai. Tel. 686-286110.
- Pertsona behar da etxea konpartitzeko. Oso prezio onean geratzen da alokairua. Tel. 637-528992.
- Herri erdialdean pisua alokagai. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 605-721711.
- Neska eskaintzen da etxea alokairuan konpartitzeko. Deitu arratsaldean. Tel. 652-716135.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789 edo 650-344915.
- Amañan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldaria eta komunak. Balkoi handi bi. Gasa eta igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 618-135429.
- Pisua salgai Barrena kalean. 3 logela, egongela-jangela, sukaldaria eta komun bi. Aparta. Hego orientazioa eta dena kanpora. Igogailua. Tel. 645-722957.

LOKALAK

- Lokal komertziala salgai Urkizuko dorreetan. 50 m². Pasabidearekin. Tel. 656-705279 edo 943-742930.
- 120 m²ko lokala alokagai. Elkarre batendako edo bilerak egiteko aproposa. 18 urtetik gorakoendako. Tel. 649-983581.

SALEROSKETAK

- Jantokiko mahaia eta aulkiak salgai. Berriak. Tel. 943-702589 edo 686-031181. Teresa.
- 'Las aventuras de Tintin' en 14 bideo salgai. Fundarekin. Berriak. 7 euro. Tel. 943-120030.
- Ohe-nidoa, eskritorioa, apala, sinfonierria eta almohada-kutxa salgai. Merke eta berria. Tel. 943-701183.
- Kotxe-kapota, silla txikia eta kapazoa salgai. Bebe-car markakoa. Tel. 943-200739 edo 605-774767.
- Korrika egiteko zinta salgai. Tel. 656-789221.
- Telebistarako kristalezko altzaria salgai. 3 apal eta moduloa. Berri-berria. Prezio onean. Tel. 665-701663.
- Okela moztekoa eta pisu elektronikoa salgai. Tel. 943-208125.
- Telebista salgai. 25 pulgada. Altzariarekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

BESTELAKOAK

- Autoa konpartituko nuke Donostiara ateke. Tel. 656-720329.
- Mobila galdu nuen aurreko barixakuan anbulategiaren parean. Eskertuko nuke tarjeta bueltatzea. Tel. 943-121386.

LANA

- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-431326.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 667-908749.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.
- Gizona eskaintzen da pegorak, lantegiak eta obra amaierako garbiketarako. Tel. 622-625812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 618-156794.
- Tarota irakurtzen da. Tel. 608-005812.
- Administraria eskaintzen da arratsalde orduka lan egiteko. Esperientzia. Tel. 699-069080.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 620-336722 edo 943-120058. Yaneth.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-095634.
- Neska euskalduna behar da arratsaldean umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 696-179224.
- Sukalde laguntzailea behar da. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-569263.
- Neska eskaintzen da orduka edozein lanerako. Tel. 686-127137.
- Emakumea behar da oinetako denda batean astean hiruzpalau arratsaldean lan egiteko. Deitu denda orduetan. Tel. 943-201580.
- Andra eskaintzea da goizez edo orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 688-618959.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Tel. 648-077830.
- Liburu-azoketan herriz-herriz ibiltzeko langilea behar da. Ezinbestekoa euskalduna izatea eta gida-baimena eta autoa edukitzea. Tel. 943-590212.
- Mutila eskaintzen da gauaz nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- DBHko neska bati klaseak emateko neska behar da. Euskeraz ondo jakitea ezinbestekoa. Tel. 943-700705.
- Mutila eskaintzen da lantegirako, arogingintzan lan egiteko, igeltsero-laguntzaile moduan... Tel. 656-781743. Gary.
- Urki inguruko emakumea behar da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-700400.
- 19 urteko ikaslea eskaintzen da umeen etxeko-lanak egiten laguntzeko. Tel. 645-704709.
- Neska eskaintzen da ilepaintedaile-laguntzaile moduan edo nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 669-064252.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 652-715908 edo 943-742201.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 659-222426. Janire.
- Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko: sukaldaria moduan, barran... Tel. 666-054698.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 628-789789.
- Neska eskaintzen da arratsaldean umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 666-815008.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-174134.
- Mutila eskaintzen da garbiketa lanak edo kamarero moduan lan egiteko. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu, tabernan lan egin... Arratsaldean eta asteburuetan Tel. 680-250527.
- Soldatzailea eskaintzen da. Esperientzia erdi-automatikoa eta TIG-en. Tel. 616-207343.
- Zientzietako klaseak ematen ditut DBHn eta Batxilergoan. Tel. 627-852080.
- Kamarera/o behar da Kultu tabernan. Euskeraz jakitea baloratuko da. Tel. 685-738435.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238 edo 943-120058.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta kalera ateratzeko. 6 euro eguneko. Tel. 943-700650.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Tel. 652-736078. Sandra.
- Klase partikularrik ematen dira. Tel. 678-351685.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 685-715805. Isabel.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da ostalaritzan edo garbiketa lanetarako. Tel. 636-001196.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.
- LHko eta DBHko 1. zikloko partikularrik ematen ditut. Talde txikiak. Esperientzia. Tel. 676-181138.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 670-095634.
- Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko. Tel. 630-531469.
- Medizinan lizentziatua behar da zentro psiko-tekniko baterako. Tel. 943-208600 edo 667-995929.
- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak paseatzera ateratzeko. Tel. 652-766525.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagunaren bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JULEN Rebolledo Urbietan, bixar zure lehelengor urtebetetzia izango dalako. Muxu handi bat famelixaren partez.



Zorionak, NAIA NILI Ereñan, eguaztenian urte bi egin zenittuan-eta. Aitaxo eta amaxoren partez.



Zorionak, UNAI, atzo hiru urte egin zenittualako. Muxu handi bat zure anaixa Jon eta aitaxo eta amaxoren partez.



Zorionak, ANER, martitzenian, hillaren 5ian, lau urte egingo dittuzue-eta. Muxu handi bat atxixue eta aumen partez.

Iragarkiak ipintzeko: 943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

EIBAR



Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99

LANDU
Promociones



Eibarrek bizilagun berria du

ING Nationale-Nederlanden dagoeneko bulego berria du Eibarren, zugatik gertu, eta zure aurrezpen eta inbertsio beharrei egokitutako doaneko Aholkularitza Pertsonalizatua jasotzera gonbidatzen zaitu.

Eibarri: Toki 10, 8-Berriak
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 25 43 03